

Goienkaria

ASTELEHENEKO

2007ko apirilaren 23a > Astelehena > III. urtea > 142. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Ikasketak osatzera beste herrialde batera joatea aberasgarria da beti"

Anne Leinoavaara-matomäki > 06



G2a

Truke azokak, Liburuaren Eguna ospatzeko > 23

ASTEKO GAIA

Alkoholiko Anonimoen lau talde ibarrean, laguntzeko gertu > 02-03

OÑATI

Ikastolako zuzendari eta presidente ohiei omenaldia > 12

ANTZERKIA

'Solala' antzezlan sarituak barre algarak eragin zituen Elgetan > 27

ENPRESA > LAGUN AROK, 25 URTE

Lagun Arok, "emaitza historikoak" 25. urtemugan

IAZ, BIKAIN 2006ko ekitaldian, 162,51 milioi euro fakturatu zituen Lagun Arok, 2005ean baino %2,09 gehiago

OSPAKIZUNA Gaur, astelehena, 25. urtemugako jaialdia izango du Bilbon MCC Taldeko aseguru erakundeak > 05

ERAIKUNTZA > FOROA

XXI. mendeko etxebizitzet berba egingo dute adituek

Eraikuntza arloko enpresei eta teknikariei eztabaida foroa eskaintzeko asmoz, egubakoitza jardunaldiak antolatu ditu Arizmendi ikastolak: XXI. mendeko etxebizitza, eraikuntza eta energia berriztagarriak. Oraindik badago izena emateko aukera.

Bestetik, energia berriztagarrien arloan diharduen Alet Taldeari enpresa berrien saria emango dio gaur Eusko Jaurlaritzak. > 04

BERTSOLARITZA > FINALA

Manex Agirre laugarren Arabako Txapelketan

Arabako Bertsolari Txapelketako finala jokatu zen zapatuan Gasteizko Jesus Guridi auditoriumean. Sei finalista ziren taula gainean eta, tartean, baita ibarreko ordezkari bat ere: Manex Agirre aramaiarra. Egindako saioarekin eta zaleen erantzunarekin gustura geratu zen Manex, baina laugarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Oihane Perea gasteiztarrak jantzi zuen txapela. > 09

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05

Elkarrizketa > 06

Iritzia > 08

Herriak > 09-14

Kirola > 15-22

Kultura > 23-27

Saillatuak > 28

Irrati-Telebista eta

Hitzorduek > 29

Berri-zakua > 30-31

Azkena > 32

ARAMAIO > OMENALDIA

Dantzarien jaialdia, primeran

Lagun Artean dantza taldearen egun handia izan zen atzo, domeka. Izan ere, taldeak 50 urte betetzen ditu aurten, eta jaialdia eta sortzaileei omenaldia egin zituzten. Antolatuak eskerrak ematen dizkiete parte-hartzaileei. > 14



HELMUGAN Xabier Olabarria bakarrik iritsi zen Oñatiko plazako helmugara.

JOSETXO ARANTZABAL

KIROLA > MENDIKO LASTERKETAK

Xabier Olabarria, nagusi Aloñako Igoeran, 1:15:55ko denbora eginez

279 korrikalari abiatu ziren igoera horren hirugarren edizioan > 15

Barruan, eskualdeko lau herriko pilota talderen posterra



SUPER AMARA

DENAK GUTXIAGO BALIO DU

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkalekua

GIZARTEA > ALKOHOLIKO ANONIMOAK

Alkoholaren hatzaparretatik ihesi, alkoholari buruz berbetan

LAGUNTZA Taldekideei adore gehien ematen diena da laguntza eske datozen alkoholikoei eskua luzatzea, sendatzea, batasuna eta laguntzea baitituzte oinarri

LARRI Muturreko egoeretara iritsitakoan joaten da jendea elkartera: etxetik edo lanetik botatzen dituztenean, alkoholemia kontroletan arazoak izandakoan...

BILERAK Astean behin elkartzeko dira ibarreko lau elkarteetako kideak euren arazoaz berba egiteko; batzuetan, beste herrietako batzarretara ere joaten dira

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Alkoholarekin arazoak dituztenek osatutako taldea da Alkoholiko Anonimoen elkarte. Arazoari aurre egiteko, esperientzia, esperantza eta indarra partekatzen dituzte, sendatzea, batasuna eta laguntzea oinarritzat hartuta. "Taldekideei adore gehien ematen diguna da laguntza eske datozenek eskua luzatzea", esan digu Arrasateko taldeko kide batek.

Elkarteko kide izateko baldintza bakarra da edateari lagatzeko nahia izatea. "Taldea librea da, ez dugu eskatzen afiliatzerik, izenik, ezta kuotak ordaintzerik ere. Askok hala uste arren, gurea ez da sekta bat. Bilerara etorri eta gustuko ez duenak har dezake hurrengora ez etortzeko erabakia".

Elkartekoei esan digute jendeak laguntza bila jotzen duela konturatzen direnean benetako arazoa dutela: "Muturreko egoeretara iristen direnean etortzen dira: etxetik edo lanetik bota behar dituztenean, errepideko alkoholemia kontroletan arazo larriak izan dituztenean..."

Bileretan, alkoholaren inguruko gaietaz jarduten dute, baina badira batzuk, alkoholarekin ez ezik, bestelako drogekin ere arazoak dituztenak. "Baliteke norbaiti beste drogekin dituen arazoari aurre egiteko ere balio izatea gure bileretan esandakoei".

Gipuzkoan, guztira, 36 talde daude, eta horietako lau, ibarrean: Arrasaten, Bergaran, Eskoriatzan eta Oñatin.

"Lehen pausoa da onartzea norbera alkoholikoa dela; alkohola tarteko denean, bizitza gobernagaitza dela"

BILERAK, ASTEAN BEHIN

Astean behin, ordu eta erdi inguruko bilerak egiten dituzte herri bakoitzean eta, noiz edo noiz, beste herrietako bileretara ere joaten dira kideak. Elkarrekin norberak egiteko hamabi pausotan oinarritutako doktrina dauka. Lehenengo da norbera alkoholikoa dela onartzea: "Onartzen dugu, alkohola tarteko bada, bizitza bera gobernagaitza dela, barruan zerbait dagoela norbere izaera aldatzen duena". Beraz, behin onartuta, hamabigarren pausora arteko bidea egin behar dute pixkanaka. Hamabigarrenak dio, pauso guztiak bete ostean, izpirituaren loalditik esnatuta, hurrengo helburua dela beste alkoholiko batzuei mezu bera helaraztea.

Bileretan, Alkoholiko Anonimoen literaturako pasarte bat irakurtzen dute eta, ondoren, norberak bere bizimoduaren gainean egiten du berba. Alkoholari aurre egiteko eta egunerokotasunean norbere buruarekin gustura egiteko zein bide jarraitzen duten kontatzen dute: "Lehen edan genezakeen Realak irabazi zuelako, Athletic-ek galdu zuelako... edozein arrazoi zen balekoa. Orain, ez dugu edaten, nahiz eta lehengo arrazoiak hor dauden", diote.

Batzarretan, elkarri entzutea eta, ahal den neurrian, laguntzea da helburua: "Inori ez diogu esaten zer egin behar duen eta zer ez. Erreparatzen diegu besteen jokabideei, eta norberak beretzat baliagarria dena hartzen du".

Etxean konposta egin nahi duzu?

Leintz-Gatzagan, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten, Oñatin, Bergaran, Elgetan edo Antzuolan bizi zara?

Debagoieneko Mankomunitateak azken 100 konpostagailuak banatzeko kanpaina jarriko du martxan.

Debagoienean bizi bazara eta bertan lorategia, lursaila, baratza edo antzekorik baduzu, deitu ezazu Debagoieneko Mankomunitatera eta har ezazu parte.

Eskaerak egiteko epea: apirilaren 23tik maiatzaren 4ra edo konpostagailuak amaitu arte. 8:00etatik 14:00etara.

Informazio gehiago nahi izan ezkerro: Debagoieneko Mankomunitatea. Arrasate Pasealekua, 5 behea. 20500 Arrasate. Tel.: 943 79 33 99.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Garapen Iraunkorrerako Departamentua
Departamento para el Desarrollo Sostenible





ANONIMOTASUNA Isileko lana egiten dute Alkoholiko Anonimoen elkartekoek; norberak alkoholarekin izandako arazoetan oinarrituz, taldekieek elkarri laguntzen diete. I.A.

BESTE EGUN BAT EDAN GABE

Bileretan, euren esperientzien gainean egiten dute berba alkoholikoek, eta bi kasu geureganatzeko aukera izan dugu. Arazoa gertutik ezagutzeko, Arrasateko taldeko kide batengana jo dugu, eta esan digu sekula ez duela pentsatu noiz, nola eta zergatik erori zen alkoholismoan: "Gaztetan, 16-17 urterekin, lanean hasi nintzenean, hasi nintzen alkohola edaten. Lanera joan aurretik, kafea eta kopa hartzen nituen; gero etorri ziren poteoa eta ondorengoak. Konturatu nintzen lagun artean azkena nintzela etxera joaten, bazkaldu gabe joaten nintzela kafea eta kopa hartzerara... Erabaki nuen proba egitea, ea gai nintzen aste-bete alkoholik edan gabe pasatzeko, baina ez nuen lortzen".

Edanak ondorio larriak ekarri zizkiola aitortu digu: "Asteburuetan mozkortzen nintzen, eta astelehenetan ez nintzen lanera joaten. Ondorio ekonomikoak ere nabarmenak ziren: etxean beharra egon arren, ez zegoen diru nahikoa, nik gastatzen nuelako".

Arazoaz jabetuta, senide bati eskatu zion laguntza: "Harremanetan jarri ninduen elkartekoekin, eta bilera batera eraman ninduten. Jende ezaguna ikusi eta pentsatu nuen, haiek lortu bazuten, ni ez nintzela gutxiago izango".

Alkoholiko zela onartzea ez zitzaion askorik kostatu, baina, bere esanetan, okerre bakardade sentimendua da: "Badirudi, burua biratu orduko, denak ari direla gaizki esaka; horrela ez bazen ere, hala sentitzen nuen".

Gaur egun, ondo dago. Egune-ro esaten dio bere buruari, "gaur ez dut edango", eta horrela pasatzen da egun bat eta beste bat edan gabe. "Badakit, beharbada, biharramunean jausi naitekeela, baina egun bakoitza pauso bat da niretzat. Jendeak ere esaten dit horrela jarraitzeko, baina beste batzuek uste dute noizbait berriz eroriko naizela. Nik ez diet kasurik egiten, nire buruari kasu egiten nahikoa lan dudalako. Hala ere, laguntza behar dutenei ematen jarraituko dut", diosku.

LAGUNTZA ESKATZETIK EMATERA

Bergarako taldeko gizonezko batek esan digu ez daukala argi zerk eraman zuen edatera, "lotsakorra, izaera ahulekoa izateak, beharbada. Lau trago hartuta, mingaina erraz jartzen nuen dantzari. Gainera, alkoholak sortzen zituen sentazioak gustuko nituen. Gero, segi eta segi egin nuen, alkoholak ni neu mende hartu arte".

Ziur ez dakien arren, uste du umetan hasi zela edaten. "Bederatzire urte izango nituen. Gurasoek

taberna zuten, eta nik botilak betetzen nituen. Behin, aitak edaten harrapatu ninduen. Beharbada, hura izan zen hasiera".

Denboraren joanean, edaten jarraitu arren, ohartu zen benetan gaizki zegoela. "Goizetan, dardarka jaikitzen nintzen eta, lane-ra joan aurretik, bi kopa behar nituen ikara kentzeko. Hamarretakoarekin, lantokian ere, ardoa edaten nuen; gero, txikiteoa zeterren, eta inoiz, etxera iritsi orduko, inongo beharrik gabe, berriz irteten nintzen beste trago bat edatera. Lanean maila galtzen joan nintzen, lagunak pixka bat alboratu ninduten, eta familia ere gaizki ikusten nuen. Bi aldiz heriotzaren atarian egon ostean, uzteko saiakera asko egin nuen. Buru-argitasun uneetan, damutu egiten nintzen egindakoaz, eta "bihar ez dut edango" esaten nuen".

Bilboko psikiatra batek esan zion, gauzak aldatu ezean, hiru hilabeteko bizi baina ez zuela. "Hainbat botika eman zizkidan, eta berak gomendatu zidan Alkoholiko Anonimoen elkartera joateko. Pausoa eman eta denbora gutxian ohartu nintzen on egin zidala. Jendearen zintotasunak aurrera egiteko adorea eman zidan. Hasieran, uste nuen joan nintzela edaten ikastera, baina esan zidaten lehenengo tragoa dela txarrena, eta, lehenengorik ezean, ez dago bigarrenik".

Gaur egun, taldean jarraitzen du, beti dagoelako entzuteko eta laguntzeko gertu. Alkohola tarteko diren ospakizunak saihesten ahalegintzen da, "beti dagoelako nor garen ahazteko arriskua".

Ahaztu nahi dutena alkohola da eta, horretarako bidea, alkohola bera berbetarako gai hartzea da.

ALKOHOLIKOA OTE NAIZ?

Alkoholikoak dira edana kontrolatzeko gai ez direnak. Batzuek, zalantza izan dezakete alkoholiko diren ala ez. Horiei laguntzeko, gal-detegi bat du Alkoholiko Anonimoen elkarteak. Hamabi galderetatik lauri baietz erantzunez gero, laguntza eskatzea komeni da.

1. Edateari uzten saiatu zara inoiz astebetetz edo luzaroago, eta tentazioan erori zara berriz?
2. Edan kontuak direla eta, nahiago zenuke jendeak zer egin behar zenukeen esango ez balizu?
3. Pasa zara inoiz edari bat edatetik beste bat edatera, berriz mozkortuko ez zarelakoan?
4. Azken urtean barrena, goizean alkoholik edateko beharrik sumatu duzu?
5. Inbidiarik sentitzen duzu arazorik gabe edan dezakeen jendearekiko?

6. Azken urtean, edanarekin zerikusia duen arazorik izan duzu?

7. Zure edateko moduak arazorik sortu du etxean?

8. Nahikoa ez duzulakoan, trago "gehigarriak" hartzen saiatu zara jairen baten?

9. Zure buruari esaten diozu edozein unetan laga diezaiokezula edateari, nahiz eta, asmorik izan gabe, mozkortzen jarraitzen duzun?

10. Edanaren eraginez, lanetik kale egin duzu egunen batzuetan?

11. Hutsarte mentalik izan duzu?

12. Inoiz pentsatu duzu, edango ez bazenu, bizimodu hobea izango zenukeela?

Alkoholiko Anonimoen bilerak

HERRIA	LEKUA	EGUNA	ORDUA
BERGARA	Kultura Etxea	Astelehenero	20:00etan
ARRASATE	Arrasate pasealekua 3, behea	Martitzenero	20:00etan
ESKORIATZA	Aranburuzabala, 5	Eguaztenero eta egubakoitzero	20:00etan*
OÑATI	Elkar Hezi (Santa Marina)	Eguenero	20:00etan

* Eskoriatzan bilera irekiak egiten dituzte hileko azken egubakoitzetan; edozein joan daiteke. OHARRA: Alkoholiko Anonimoen elkartearekin harremanetan jartzeko telefonoa: 629 14 18 74.

"La memoria histórica desde el punto de vista de las mujeres" " Nosotras que perdimos la paz "

- **Eguna:** Apirilaren 23an
- **Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan
- **Hizlaria:** Llum Quiñonero
- **Lekua:** Ibarraundi museoan

Oharra: hitzaldia gazteleraz izango da.



Intxaurtxueta kalea z/g,
Eskoriatza.
Telf. 943715453

ERAIKUNTZA > JARDUNALDIK

XXI. mendeko etxebizitzetaz jardunaldia

Eraikuntza sektoreak izango dituen erronken gaineko jardunaldia antolatu du Arizmendik

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

XXI. mendean, eraikuntza sektoreak erronka berriei aurre egin behar die, eta erronka handiena ingurumena errespetatzea eta zaintzea da, adituen esanetan. Hori kontuan hartuta, jardunaldia antolatu du Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketak, Arrasateko Udalararen eta LKS Ingeniaritzaren laguntzarekin: *XXI. mendeko etxebizitza, eraikuntza eta energia berriztagarriak*. Egu-bakoitzean, hilak 26, izango da.

Izena emateko aukera bada goz oraindik, 943 77 20 25 telefonora deituta edo www.arizmendi.ikastola.net/eraikuntza Interneteko helbidean.

GOIZ OSOKO EGITARAU

Jardunaldia Kulturaten izango da. 09:00etan hasiko da eta, gero, Eusko Jaurlaritzako, LKSk, Arizmendi ikastolako, CADEMeko, Ikerlaneko, Visesako eta Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkarien hitzaldiak izango dira. Ignazio Lakuntza alkateak ere hitz egingo du. Bukatzeko, 13:00etan, Eraikuntzarako Kode Teknikoaren gaineko mahai ingurua egingo dute hiru adituk.

Jardunaldion arduradun Edurne Erauskinek dioenez, euren helburua eraikuntza enpresei foro bat eskaintzea da, eta aurrerantzean ere egingo dituzte jardunaldi gehiago.

Enpresa berriaren saria eman diote Alet Taldeari

Bergarako Alet Taldeari enpresa berrien Urrats saria eman dio Eusko Jaurlaritzak, eta gaur, astelehena, izango da sari banaketa ekitaldia, Donostiako Kursaal aretoan, 17:00etan. Tontxu Campos Hezkuntza sailburuak eta Ana Agirre Industria sailburuak emango diete saria. Beste enpresa batzuk ere sarituko dituzte ekitaldi horretan.

Alet bi lagunek osatzen dute oraingo. 2005ean sortu zen. Energia berriztagarriaren arloan lan egiten dute, eta, orain, geotermian sartu dira. Amilaga auzoan ipini berri dute egoitza.



Alet Taldeak energia berriztagarrien arloan dihardu.

ALET TALDEA S.L.



JOSETXO ARANTZABAL

Sinadurengatik eskerrak eman zuen ezker abertzaleak hainbat herritan

Hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko herritarrek eman dituzten sinadurak eskertzeko eta "prozesu demokratikoaren alde egiteko" eskatzeko, elkarretaratzea egin zuten zapatuan Arrasateko -argazkian-, Bergarako eta Aretxabaletako Abertzale Sozialisten Batasuneko taldeek. Hurrenez hurren, 1.520, 1.146 eta 492 sinadura jaso dituzte hiru herri horietan; Oñatin, 679 jaso dituztela ere jakinarazi dute. ASBk hauteskundeetan egongo dela agindu du.



IKUSKUZUNA Klown emanaldia egon zen, GKEek antolatuta.

IÑIGO TRUEBA

ELKARTASUNA > GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK

GKEen ekintza asko joan den asteen eta datozen egunotan

Etzi eta eguenean, denondako hezkuntza eskubidea eskatuko du Pobrezia Zerok

L.K. > ARRASATE

GKEen ekitaldiz josita egon dira egunok. Hala, etzi, eguaztena, Pobrezia Zerok denondako hez-

kuntza eskubidea eskatzeko ekitaldia egingo du Arrasaten. Arrasateko ikasleekin, jokoak, giza katea, bertso emanaldiak... egingo dituzte Herriko plazan, 11:00etatik aurrera; eta eguenean, hilak 26, gauza bera egingo dute Eskoriatzako plazan.

Bestetik, ibarreko hainbat Gobernu Kanpoko Erakundeek parte hartu zuten joan den eguazten eta eguenean Arrasateko Goi Eskola Politeknikoak antolatutako jardunaldietan, euren lana ezagutarazteko eta jendea boluntario izatera animatzeko. Besteak beste, Mugarik Gabeko Ingeniariak, Iturrigorri, Mundukide, Nubi edo Iesbaa taldeek parte hartu zuten. Norberak bere postua ipini zuen proiektuak erakusteko, eta klown eta musika emanaldiak ere izan ziren.


IRIARTE

Umeen
dendaHelduen
lentzeria

Durana 8

Tel.: 943 79 10 96

ARETXABALETAKO

HAURRENTZAKO
MASAJE IKASTAROAUrte 1era bitarteko haurrak
dituzten gurasoei zuzendua

ANTOLATZAILEA

MUGI, Psikomotrizitate
Prebentzio eta Laguntza Zentroa

TOKIA

Araba etorbidea 3,
2-3.atea

EGUNAK

Maiatzaren 10, 17, 24 eta 31ean

ORDUA

10:30etatik 12:00etara

INFORMAZIOA

MUGI ZENTRUKO

943 77 08 05

ARRASATE

- LASAITZEKO
- HOBETO LO EGITEKO
- KOLIKO ETA HORTZALDIETAKO MINAK BARETZEKO
- UMEAREKIN KOMUNIKAZIO AFEKTIBOA SENDOTZEKO
- INMUNITATE-SISTEMA SENDOTZEKO

UZTAILAN

FAMILIA

IRLANDARREKIN

ELKARBIZITZA

parlance-idiomas.com

943 77 06 83

ENPRESAK > LAGUN ARO

Lagun Arok 25. urteurrena ospatuko du gaur, iaz arlo guztietan hazi ondoren

"Emaitza historikoak" lortu zituen 2006an MCCko aseguru entitateak: 162,51 milioiko fakturazioa eta 23,67ko zerga aurreko mozkin

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Lagun Arok, MCCko aseguru entitateak, "emaitza historikoekin" itxi zuen 2006ko ekitaldia: 162,51 milioi euro fakturatu zituen -2005ean baino %2,09 gehiago-; 23,67 milioi euroko zerga aurreko mozkin izan zuen -2005ekoa: %15,09- eta 320.000 bezero inguru lortu zituen Estatuan. Enpresaren sarrera finantzario gordinak 20,35 milioira iritsi ziren urte amaieran.

Emaitza horiek jakinarazi zituzten Lagun Aroko presidente Julio Gallastegik eta zuzendari nagusi Pablo Mongelosek joan den egunean Bilbon.

Era berean, 25. urteurrena du aurten Lagun Arok, eta gaur,



ARDURADUNAK Lagun Aroko presidentea, Julio Gallastegi, eta zuzendari nagusia, Pablo Mongelos.

MBN COMUNICACIÓN

astelehena, ospatuko du hori erakundeak bere bezeroekin, Bilboko Euskalduna Jauregian, Kepa Junkeraren kontzertu batekin.

ADARREZ ADAR

Gallastegik eta Mongelosek azaldu zuten, Lagun Aro enpresa merkatuaren gainetik hazi da.

Hala, Seguros Lagun Arok 18,17 milioiko zerga aurreko mozkin izan zuen iaz, aurreko urtean baino %13,49 gehiago. Arloka,

honako hazkundea izan zuen: etxebizitzan, %15,1; denda aseguruetan, %10,7; istripu aseguruetan, %8,7; eta automobiletaketan, %5,1. Seguros Lagun Aro Vidaren zerga aurreko mozkin 5,49 milioi izan da, aurreko urtean baino %18,09 gehiago. Kasu guztietan, hazkundea Estatu sektoreak izandakoa baino handiagoa izan da.

Inbertitzaileei dagokienez, Bizitza Aseguruen atalean, funts propioen gaineko errentagarritasuna %16koa izan zen, eta gainerakoetan, %59koa. Horrez gain, Lagun Aro proiektua osatzen duten pertsonen kopuruak %8 egin du gora 2005etik.

AURREIKUSPENAK

Aurtengo aurreikuspenak ere azaldu zituen Lagun Arok: 159 milioiko fakturazioa eta zerga aurreko 23,2 milioiko mozkin. EAEn eta Nafarroan hazten jarraitzea aurreikusten du.

Ikuspuntu komertzialetik, Automobilaren adarrari emango dio lehentasuna: hor, fakturazioa %6,2 eta polizak %10 igoko direla uste dute.

Salneurri gomendatua Peninsulan eta Balear Uharteetan Mondeo Futura X TDCi 115zp eta C-MAX Newport 1.6 100zp hil amaiera arte baliagarria. Prever plana, BEZA, garraioa, sustapen deskontua eta kontzesionarioaren ekarpena bame. Eskaintza hau ez da baliagarria langile eta flotentzat. Ikusten diren modeloa: C-MAX Ghia eta Mondeo Titanium X. C-MAX/Mondeo: kontsumoa: 4,8-10,6 l/km. CO2 emisioak: 127-198 g/km.

EGUN URDINAK BUKATZEN ARI DIRA

ETA ORAIN
960€
eraman ditzazu
Plan Prever
bikoitzarengatik

Egun Urdinak

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Feel the difference



FORD MONDEO x 19.200€

-Aire-klimatizagailua -Bluetooth-a eta ahots bidezko kontrola
-TDCi motorra
-Abiadura kontrola
-6CD-ko Sony irratia

FORD C-MAX x 14.390€

-Aire-klimatizagailua -Bluetooth-a eta ahots bidezko kontrola
-Abiadura kontrola -CD-irratia
-Barruko ordenagailua

Finlandiako Turku University of Applied Sciences unibertsitateko irakasle da Anne Leinoara-matomäki. Asteon, Oñatin izan da, Eteon, Finlandiari eta bertako ekonomiari buruzko hitzaldia egiten bertako ikasleei. Hezkuntza metodologia berri-tzailetan aditua da, eta enpre-sa munduan nazioarteko negoziazioei eta marketingari buruzko hainbat lan egin ditu.

Anne Leinoara-matomäki > Turku University of Applied Sciences unibertsitateko irakaslea

"Ikasketak osatzera beste herrialde batera joatea beti da aberasgarria"

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Helsinki jaioa, bertan egin zituen ikasketak eta, nazioarteko marketingean espezializatu ostean, ikerketari ekin zion. Besteak beste, Erresuma Batuan, Belgikan eta Alemanian jardun du lanean eta, egun, irakasle lanean dihardu Turkun, eta doktoretza tesia egiten ari da.

Oñatin izan zara hitzaldia egiten. Zertaz jardun duzu?

Mondragon Unibertsitatearen Bidasoako kanpusean izan naiz lehenengo, eta nazioarteko marketingaz jardun dut han. Oñatin, berriz, Enpresa Zientzietako ikasleekin izan naiz, Finlandiako ekonomiari buruz berbetan. Bolognako prozesuaren baitan, ikaske-ta metodologietan, Europan egiten ari garen aldatetean, Finlandia puntako herrialdea da, eta, bertako irakasle naizen aldetik, interesgarria da hemengo ikasleek ikus dezaten nola irakasten dugun han.

Mondragon Unibertsitatea garatzen ari den Mendeberti programaz, ze iritzi daukazu?

Programa interesgarria da, baina bai ikasle eta bai irakasleei orain artekoa baino lan handiagoa egitea eskatzen die. Finlandian, badira ikasle batzuk hobeto funtzionatzen dutenak metodologia tradizionalarekin, eta beste batzuek gehiago ikasten dute programa berriekin, eta, hemen ere, hala izango dela uste dut.

Nolakoa da Europatik datorren hezkuntza metodologia?

Metodo eraikitzaileak erabiltzen ditugu, arazoetan oinarritutako ikaskuntza, esaterako: testuetatik zuzenean ikasi beharrean, ikasleei arazo bat aurkezten diegu, eta, horretan oinarrituta, teoria egiten dute, eta arazo hori nola konpondu ikasten dute. Metodologiok bereziki interesgarriak dira kudeaketa eta enpresa zientziakin lotutako ikasketetan.

Gurean, zein hezkuntza maila ikusten duzu?

Tarte laburra izan dut hemengo ikasleekin egoteko, baina, irakasle, ikasle eta proiektuei erreparatuta, esan genezake egoera bertsuan gaudela, batik bat, fakultate honetan lantzen diren gaiak kontuan hartuta. Ingeles mailari dagokionez, ordea, maila baxuagoa sumatu dut gure ikasleekin alderatuta. Bestalde, atentzioa eman dit unibertsitatea kooperatiba dela eta ikasle zein irakasleek parte hartzen dutela jakiteak.



Oñatin, Eteon, Finlandiako ekonomia izan zuen hizpide Anne Leinoara-matomäkik, Enpresa Zientzietako ikasleen aurrean.

I.A.

Finlandian, hizkuntza minorizatuen egoera bizi duzuenek, nola ikusten duzu euskararen egoera irakaskuntzan?

Ez dakit askorik euskarari buruz, eta are gutxiago irakaskuntzan zein egoeratan dagoen. Gurean, finlandiera eta suediera dira derrigorrezkoak, eta ingelesa ikas-tea ere oso ohikoa da. Bestalde, ikasle askok alemana, frantsesa, italiara, espainola zein errusiera ere ikasten dituzte. Izan ere, beste herrialdeetako jendearekin harremanetan jartzeko eta lanerako beharrezkoak dira. Euskara bakarrik ez litzateke nahikoa nazioarteko merkatuan jarduteko.

Enpresen nazioarteratzea gai garrantzitsua da egun, ezta?

Finlandia herrialde txikia izanik, gure ekonomia enpresen nazioarteratzearen mende dago, erabat. Euskal Herriko egoera, arlo horretan, ez dut ezagutzen.

Marketinga nola aplikatu daiteke enpresak nazioarteratzeko?

Barne marketinga bezalakoa da, hau da, produktuaren salmentarako zerbitzua, baina kontuan

METODOLOGIA

"Metodo eraikitzaileak erabiltzen ditugu, arazoetan oinarritutako ikaskuntza"

HIZKUNTZAK

"Euskara bakarrik ez litzateke nahikoa izango nazioarteko merkatuan jarduteko"

KOMUNIKAZIOA

"Enpresa txikiek ez dute nahikoa baliabide, eta, komunikazioari baino gehiago, beste gauza batzuei ematen diete lehentasuna"

hartuta bezeroak atzerrian daudela. Beraz, kontuan hartu behar dira herrialde horretako hizkuntza, kultura, gizartea... eta horrek zaildu egiten du marketing lana. Esaterako, Finlandian, sakelako telefonoak egiten oso onak gara, baina horiek saltzen asmatu behar da, mundura zabaltzen benetan bikainak direla.

Gure ibarra enpresen bilgune izanik, inguru berean enpresa asko egotea ona da nazioarteko ikuspegia izateko?

Enpresen jardunaren arabera da hori. Batak bestearen beharra izanez gero, bai, ona litzateke, baina, bakoitzak bere patentea badu, nazioarteratze politika ere, norberak berea izango du. Sinergiak aprobetxatzea da kontua.

Zure ustez, enpresek modu egokian kudeatzen dute komunikazio arloa?

Bai; enpresa handiek, batez ere. Txikien kasuan, ez dute nahikoa baliabide, eta komunikazioari baino gehiago, beste gauza batzuei ematen diete lehentasuna.

Nazioarteko negoziazioa ere lantzen duzu. Zertan datza?

Enpresen arteko akordioak nola egin da kontua. Horretan, eragin nabarmena dute ezberdintasun kulturalak. Esaterako, diote finlandiarrok ez dugula askorik hitz egiten, eta hori da hitz egin aurretik asko pentsatzen dugulako, baina bitxia iruditzen zaio askori. Bestalde, hitzari idatzitakoari besteko garrantzia ematen diogu. Negoziazio garaian, saunara joatea ere erri-tuaren zati bat da guretzat.

Ikasleen arteko truke programetan duzun esperientziaren arabera, baliagarriak dira horrelako proiektuak ikasleen ikuspegia zabaltzeko?

Entzun dut, Euskal Herrian, ikasleak itxiagoak direla, edo nahiago dutela etxean geratzea, baina, era berean, truke programetikiko interesa azaltzen dute, eta, une honetan Eteoko bi ikasle ditugu Turkun. Beraz, neuk gomendatuko nieke ikasleei beste herrialde batera joateko ikasketak osatzera, kanpora joatea beti izaten baita aberasgarria. Σ

oharrak eta deialdiak

OÑATI

> Ate irekien jardunaldia egingo dute eguenean Haurreskolan

Maiatzaren 17tik 31ra bitartean matrikulazio epea irekiko dute Haurreskolan. Hori horrela, eguenean, apirilak 26, ate irekiak egingo dituzte interesa duenak eskola ezagutu dezan, 17:00etatik 20:00etara. Eskola Olakua 19n dago. Informazio gehiago, 943 71 64 05 zenbakian.

ARETXABAETA

> Posta bidez bozkatu nahi dutenendako zerbitzua jarri du EAJK

Posta bidez bozkatzeko orduan zalantzaren bat izan edo laguntza behar dutenendako zerbitzua jarri du EAJK batzokian. Interesa dutenak astelehen eta eguaztenetan 18:00etatik 19:30era bitartean hurrera daitezke.

BERGARA

> Odol ateratzeak egingo dituzte hilaren 25ean

Odol emaileen elkarrekin gogora ekarri du hurrengo ateratzeak hilaren 25ean, eguaztena, egingo dituztela. Ohi bezala, Seminarioko lokalean egingo dituzte ateratzeak, 18:00etan hasita.

ESKORIATZA

> 1957an eta 1958ko urtaririletaotsaileen jaiotako enirteera

Udan, ekainaren 9an egingo dute irteera, Arra-

tiara. Interesatuak honako telefonoetara dei dezakete: 619 21 97 53 edo 943 71 50 42.

ESKORIATZA

> KZgunean, beste bi ikastaro egingo dituzte oraingo egubakoitzean

18:00etatik 19:00etara, sinadura elektronikoen gainekoa egingo dute, eta 19:00etatik 20:00etara, egunkaria irakurtzearen gainekoa, biak ala biak euskaraz.

ESKORIATZA

> 1949an jaiotakoekin to bazkaria

Maiatzaren 12an egingo dute, Tartufo tabernan. Autobus zerbitzua egongo da. Izena emateko deitu 943 76 35 51 zenbakira.

DEBAGOIENA

> Etxean konposta egiteko konpostagailuak banatuko dituzte

Azken 100 konpostagailuak banatzeko kanpaina gaur, astelehena,

hasiko da, eta maiatzaren 4ra arte iraungo du. Konpostagailua hartzeko interesa dutenek 943 79 33 99 zenbakira dei dezakete, 08:00etatik 14:00etara.

ARAMAIO

> Haurren behar afektiboaren gaineko hitzaldia

Eguaztenean izango da, 18:00etan, eskolako liburutegian. Joxe Amia psikologoak egingo du. Batik bat, haur txikien gaineko beharren gainean arituko da.

DEBAGOIENA

> Enpresak sortzeko online ikastaroa antolatuko du Mankomunitateak

Helburua da nork bere enpresa ideia aztertu ahal izateko pertsona ekintzaileak trebatzea. 150 ordukoa izango da, eta doan. Apirilaren 23tik ekainaren 29ra izango dira eskolak. Informazio gehiago edo izena emateko deitu 943 79 30 90 zenbakira edo jo

www.debagoiena.com helbidera.

BERGARA

> Ludotekako begirale izan nahi dutenendako izenemate epea zabalik dago

Apirilaren 27ra, egubakoitzea, arte egongo da zabalik ludotekan begirale izateko izenemate. Informazio gehiagorako edo izena emateko, jo ludotekara, Agorrosin ekintza gunean.

BERGARA

> 1963an jaiotakoekin to bazkaria

Maiatzaren 12an egingo dute, Torrekua erretegiaren, 15:00etan. Izenemate maiatzaren 10ean bukatuko da. Horretarako, 10 euro aurreratu beharko dira, Torrekua erretegiaren edo Ariznoa tabernan.

BERGARA

> Postaz bozkatzeko bulegoa jarri du EAJK

Batzokian jarri dute bulegoa, hilaren 17ra arte. 11:30etik 13:00etara eta 19:00etatik 21:00etara egongo da zabalik. Informazio gehiago 943 76 47 00 zenbakian.

ARRASATE

> Postaz bozkatzeko aukera dago Batzokian

Arrasateko EAJK postaz bozkatzeko argibideak eta laguntza emango ditu gaurtik, astelehena, egubakoitzera bitartean, batzokian, 17:00etatik 20:00etara bitartean.

etxeko leihotik



Usoa Agirre > Goienako Telematika saileko arduraduna

Ingurumenaren aldeko politika hipokritak

Lurraren eguna ospatu zuten atzo, domeka, mundu guztian. 1970ean egin zen lehen aldiz Lurraren Eguna AEBtan, errekurtsu naturalak zaintzeko beharra aldarrikatzeko. Urte asko pasa dira egun hartatik, baina oraindik ere aldarrikapenak horietatik dira. Ekologista zoro batzuen eskaerak besterik ez direla esango du jendeak, baina guztion ardura da errekurtsu naturalak zaintzea.

Guztion ardura diot, guzti-guztiona. Ez da hiritar xumeon ardura bakarrik; agintariak ere ardura handiagoa hartu beharko lukete. Alferrik da energia gutxi gastatzeko gida-liburuak argitaratzea ez bada benetako neurriak hartzen.

Nik birziklatzen dut, ontzi garbigailua erabiltzen dut eskuz garbitu beharrean, ur txorrotan ixten dut behar ez dudanean, eguzki argia aprobetxatzen dut ahal dudanean guztian... baina badaude kontrolatu ezin ditudan gauza asko: errekurtsu naturalak ustiatzea, hormigoizko proiektu erraldoiak egitea, garraio publiko merkea eta garbia bultzatzea... Orain hauteskunderen kanpainan sartuko garenez, ez da txarra izango gure agintari izango direnei horiek eskatzea.

"Alferrik da energia gutxi gastatzeko gida-liburuak argitaratzea"

> **Asteon entzun dut AEBtan milioika erlauntzak erlerik gabe aurkitu dituztela. Hango fenomeno hori ere laster etorriko da gurera eta, orduan, polinizaziorik egon ezean, akabo gure baserrietako fruituak**

> **Iraketik, albiste odoltsuen artean, boteredunak poztu dituen albistea etorri zaigu: uste zen baino petrolio gehiago dago. Ingurumenari zertarako begiratu, petrolioa baldin badaukagu?**

debagoiendarrak kanpoan

Amaia Leibar > Arrasate

"Ibarrean gertatzen denaren berri izaten dut GOIENKARIA irakurrita"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Orain dela bi urte hartu zuen erabakia Amaia Leibarrek: Arrasate utzi eta Iruñera bizi izatera joatea pentsatu zuen. Ez zen erabaki samurra izan, adierazi digun bezala, baina, orain, bere lekua han dagoela ere aitortu digu.

Zer bultzatu zituen Iruñera bizi izatera joatea?

Pentsatzen jarrita, aldeko eta kontrako arrazoiak nituen: alde batetik, Arrasaten, lan egonkorra neukan, eta familia eta lagunak ere bertan nituen. Bestetik, Iruñea ezagutzen nuen, izan ere, bertan ikasi nuen. Iruñea gustuko dudana hiria da; xarma berezia dauka Iruñeak.

Gainera, nire mutila Iruñeko da, eta horrek ere, erabakia hartzerakoan, pisu handia izan zuen.

Pentsatzen jarri ginen eta berak herriari lotura handiagoa ziola konturatu ginen; beraz, erabakia ni hara joatea izan zen. Beti izan dut kanpoan bizi izateko gogoia.

Gogorra egin zitzaizun Iruñeko bizimodura egokitzea?

Bai, nahikoa kostatu zitzaidan. Denbora batean, lan barik egon nintzen; gero, nire arloa ez den beste lan batzuetan aritu nintzen, eta, egia esan, horrek jende mordera ezagutzeko aukera eman zidan. Hiria izan arren, Iruñea herri bat bezalakoa da; behin jendea ezagututa, zure lekua egiteko aukera ematen duen hiria da.

Gerora, kazetari moduan lan egiteko aukera izan dut, tokiko enpresa batean; bertan, auzo aldizkariak egiten ditugu eta, gainera, euskaraz lan egiten dugu.



GOIENKARIA

Iruñean bizi da

Arrasate utzi eta Iruñera bizi izatera joan zen Amaia Leibar; gaur egun, auzo aldizkari baten dihardu.

GOIENKARIAN lana egindakoa zara. Orain, baduzu hori irakurtzeko ohitura?

Bai; ez dakit kazetaria naizela edo zergatik, baina, bai egubakoitzea eta bai asteleheneko GOIENKARIA jaso eta irakurtzen dut. Han gertatzen denaren berri badut; gainera, *Goiena.net*-en ia egunero sartzen naiz.

Zenbatean behin etortzen zara etxera?

Garaiak izaten dira, baina, normalean, askotan egiten dut bisita. Arrasatera joaten naiz, eta ez naiz egun berezien zain egoten; hau da, Gabonak edo ospakizun berezietan gain, beste edozein aste bukaeratan ere joaten naiz Arrasatera. Batzuetan, egubakoitzetan, lanetik atera eta gero, gogorra egiten da autoa hartu

eta Arrasatera joatea, eta nahia izaten dut etxean lasai gertatzea. Etxekoek, baina, behar baino gutxiagotan joaten naizela esaten didate.

Iruñean zaudenean, zer nabaritzen duzu faltan?

Gauza asko nabaritzen ditut faltan, baina, batez ere, familia eta lagunak. Arrasatera joaten naizenean, emozionatu egiten naiz. Hainbat arlotan ezagututako lagun asko ditut eta, aste bukaeratan, zaila izaten da guztiekin egotea.

Zein da Debagoieneko toki gustukoena?

Urkulu ingurua; baserria, Sargarai, bertan daukagu eta, niretzat, hura paradisua da; ihes egin eta lasai egoteko leku aproposa.

kale inkesta

Udaberria iritsi da eta, harekin batera, alergiak. Arazorik izaten duzu alergiekin?



Edurne Korkostegi
Langilea
Oñati

Ez, udaberrian ez dut inolako arazorik izaten alergiak direla-eta. Gure etxean ere, inor ez da gaizki jartzen. Hala ere, ezagutzen dut jendea urtero medikuarengana joan behar izaten duena, alergiengatik.



Maria Jesus Julian
Langilea
Oñati

Gure etxean, alaba txikiak izaten ditu arazoak: akaroei eta gramineei die alergiak. Medikuekin ibili ondoren, oso larria ez dela esan diote; hala ere, botikak hartu behar izaten ditu, alergiari aurre egiteko.



Javier Gorostidi
Erretiratua
Oñati

Ez; zorionez, nik ez dut inoiz inolako arazorik izan udaberriko alergiekin. Baina pinuei alergiak dien jendea ezagutzen dut, eta, egia esan, oso txarto pasatzen dute. Medikuekin ari dira tratamendua hartzen.



Milagros Enparantza
Langilea
Oñati

Nik gaztetan izan nuen halako alergia bat, baina, gaur egun, ez dut arazorik. Gure etxean eta inguruan, inork ez du udaberriko alergia; beraz, ez dugu inolako arazorik izaten udaberria heltzen denean.

irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

OÑATI

> Putzuaren orde, loreak

Oñatiar batek idatzi digu Udalarik eskerrak emateko: "Aspaldian ez nintzen merkatura joaten, baina lehengoan joan nintzen eta konturatu nintzen guk umetan betidanik ur zikineko putzu handi bat ezagutu dugun lekua lorez betetako berdegune txiki bihurtu dela. Beharbada, denbora darama han, baina ni orain konturatu naiz, eta oso neurri ona iruditu zaidala esan gura dut".

DEBAGOIENA

> Irakurzaletasunaren alde, urte osoan

Arrasatear batek, Liburuaren Egunaren harira, honakoa dio: "Batetik, Arrasateko eta ibarreko gainerako liburutegi publikoak zoriandu gura ditut, Liburuaren Egunaren inguruan ekintza asko antolatzen dituztelako, oso interesgarriak eta gustukoak, gainera. Baina, era berean, liburuaren eguna egunero da, guk hala gura badugu, eta jendea animatu gura dut liburutetara hurbiltzeko edozein egunetan, ez bakarrik Liburuaren Egunean".

BERGARA

> Telefono kabina, birrinduta

Ibargarai kalean barrena dagoen telefono kabina "guztiz birrinduta" agertu da aste bukaeran; hala diosku bergarar batek, haserre, eta, ironiaz, hauxe gaineratzen du: "Gehienok sakelakoa dugu orain, eta gero eta gutxiagok erabiltzen dituzte kabinak, baina hori ez da beroiek apurtzen ibiltzeko arrazoia!"

usteak uste

Edurne Burgaña

Neure burua zuzendu nahian...

Usteak Uste atala idatzi nuen azkeneko aldian, Mutriku eta Bergararen arteko ezberdintasunak-edo aipatu nituen. Puntuak banatzen eta kentzen ibili nintzen bi herriei. Banatutakoan artean, bat itsasoa edukitzeagatik eman nion Mutrikuri, baina, aurreko astean, dudak sortu zaizkit.

Izan ere, udaberriko giroa iritsi da eta, Bergaran, benetan giro ederra egiten du; jendea mahuka motza erabiltzen hasi da. Gorputza gehiago erakusten.

Baina Mutrikun, itsasoak trabak jartzen ditu. Oraindik hotza dago Kantauri itsasoa, eta giro beroa sortzean, kontrastearekin, lainoa eratzen da. Ezin ba, eguzki ederraren berotasunaz gozatu. Beraz, udaberrian behintzat, itsasoa traba bat izan liteke. Baina, udan nolako mesede egiten duen?

zorroztailea



Markos Balentziaga

Pello Urkiolarenak

"Zalaparta piztu du Pello Urkiola UPNko zinegotzi leitzararen *Nere hitze bertsotan liburuak* (...). Pedro Pegenaute (...) alboan zuela aurkeztu zuen liburua (...). Bertan, besteak beste, "mairuak" Espainiatik behingoz botatzea edo Franco hil zenetik benetako demokraziarik ez dagoela adierazten du."

Berria > 2007-04-21



Pello Urkiola ez dogu ezaguna Urkuluko ura edaten dogun inguruotan. Urkiola jauna Naparruko Leitzakoa da izatez, eta bertsolarixa. Ez dakit jendaurrian asko jarduna dan. Frankista amorratua, urtetan dihardu UPNko zinegotzi, sorterrixan.

Urkiolak burua betiko lepo frankistatik dakar hedabideetara orainguan be: *Nere hitze bertsotan* izena emon dotsan liburu bat kaleratu dau, jua dan zapatuko *Berria*-n Joxerra Senar kazetarixak jasotzen zebanez.

Napar Gobernuak liburua doan banatuko dau sare publikoan.

Kontu honek guztiak narru gorritan harrapatu nau: ez neki-xan Sanzek, Gurreak, Pegenautek edota Alberto Catalanek halako beretsoaletasunik ebenik... Beti berandu ni!

Telebistan fortunau izan jat manifestaziñoren baten akaberan —Donostiako Bulebarren, berbarako— Urkiolak kantautako bertsoren bat edo beste Iñaki Ezquerrak, Savaterrek edota M. Buesak txalotzen zotsela ikustia.

Liburuaren aurkezpenean UPNren idazkari dan Catalanek bota zeban jende askok pentsatzen dabela Urkiolaren antzera.

Liburuak zertaz diharduan jakiteko liburua bera irakurri biharra dago, jakiña. Bittartian, *Berria*-k egiten daben erreseiñatxuari erreparaiko dotsagu. Nik uste dot kazetarixak gauza gordin samarrak aitatzen dituala, ez dotset-eta parte oneko irizten Franco goraiptziari, moruak bota egin bihar dirala esateari, gaizkileak ikastolen emaitza dirala idazteari, euskal abertzaletasuna txikitu biharra dagoala zabalteari... Hori, Napar Gobernuaren eupada adoretua lagun dabela!

Urkiola jauna, fama billa zara? Frankista salaua zarala erakutsi nahixan-edo zabitz? Hemen, adiskide, askok eta askok diñoguna da: frankistarik? ez, eskerrik asko! Dana dala, bertso kantatzeko gonbidapen gutxi izateari etsi eziñik, kantatzeko miñez eta monoz bazabitz, hara: datorren urteko Erremu-zapatuan, esaterako, etorri zaitezte euroIturgaitz eta bixok, eskuz esku, Bergarako frontoira! Ez da bertsoaletasun faltarik Bergaran!

Ez horregatik.

"Pello Urkiola Naparruko Leitzakoa da izatez, eta bertsolarixa"

"Urkiola jauna, frankista salaua zarala erakutsi nahixan zabitz?"

Goienkaria

Argiraratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Erredakzioa Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Iratxe Agirreazaldegui, Edurne Burgaña Oinarritzko diseinua Golo Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larralaga Harpidetza eta banaketa Miren Agirre Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Oñatiaren Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publiz@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **ARRASATE**
Arrasate Lehiaketen sariak banatuko ditu AED elkarteak oraingo eguenean > 10



> **BERGARA**
Domingo Irala kalean orain arte egindako lanak asfaltoz estaliko dituzte jaietarako > 11



> **ESKORIATZA**
Emakumeek euren defendatzeko teknikak irakatsiko dituzte ikastaro baten > 13

ARAMAIO > ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Manex Agirre laugarrena izan zen Gasteizko finaleko saioan

TXAPELDUNA

Oihane Perek jantzi zuen txapela, eta Iñaki Viñaspre izan zen bigarren

SARIAK

Xabier Agirre aitaren eskutik jaso zuen Manex Agirrek oroigarria

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARAMAIO

Gasteizko Jesus Guridi auditoriuma beteta zela jokatu zuten Oihane Perea, Iñaki Viñaspre, Asier Otamendi, Manex Agirre, Juan Mari Juaristi eta Zigor Enbeita bertsolari Arabako Bertsolari Txapelketako finala. Giroa bero izan zen, eta Debagoienetik ere gerturatu zen jendea, Arrasate-tik eta Aramaio-tik, batez ere. Zaleen oihu eta animuak entzuteaz gain, bertsolari batzuen aldeko pankartarik ere ez zen falta izan aretoan. Manex Agirre finalistak esan digu: "Bertsolari guztiok bat etorri ginen esatean, iazkoarekin alderatuta, finala hobea izan zela, bai emandako mailarengatik eta baita jendeak erakutsitako bertso gogoarengatik ere".

Saio erregularra egin ostean, hainbat urtetan bigarren postuarekin konformatu behar izan den Oihane Perea izan zen txapeldun; bigarren, Iñaki Viñaspre sailkatu zen; Asier Otamendi izan zen hirugarren; Manex Agirre, laugarren; Juan Mari Juaristi, bosgarren; eta iazko txapelduna, Zigor Enbeita, azkena izan zen.

ZORTZIKO TXIKIAN, GUSTURA

Pablo Pagegi gai emailearen esanetara jardun zuten sei bertsolariak. Zortziko nagusian modu Manex Agirrek eta Juan Mari Juaristik ekin zioten txakurtegi batean topo egin zuten bi lagunaren paperean: bata txakurra uztera zihonan, eta txakurraren bila, bestea. Lehenak zirelako-edo, hotz xamar jardun zuten.



FINALISTAK Ezkerretik hasita, Manex Agirre, Juan Mari Juaristi, Oihane Perea, Asier Otamendi, Iñaki Viñaspre eta Zigor Enbeita.

ARGAZKI PRESS

Zortziko txikiko jardunekin piztu zen giroa. Barreak eragin zituen Juaristi eta Perekaren saioak. Oihane Perek etxean jaiak antolatzen zituela-eta, kexu zen Juan Mari bizilaguna. Aitarekin erosketak egitera joan eta, kondoiak erosi zituelako, lotsa sentitu zuela kantatu zuten hurrengo lanean Otamendik eta Viñasprek.

Manex Agirrek esan digunez, bera ere zortziko txikiko lanarekin geratu zen gusturen. Pailazo hasi berria zen, eta Zigor Enbeitak lanbidea erakutsi behar zion. Politu jardun zuen ofizio horretan.

Bina bertso bota zituzten gero, hasierako puntua emanda. Aramaioarra, lan hori amaituta ere, pozik geratu zen.

Hamarreko txikian, herri txiki bateko autobus geltokian ipini

zituen gai emaileak Manex Agirre eta Oihane Perea, eta txukun boro-bildu zuten saioa. Maila polita erakutsi zuten Viñasprek eta Juaristik ere, erretiratuaren erresidentzia batean topo egiten duten bi adinekoren paperean. Asier Otamendik eta Zigor Enbeitak, prostitutu paperean ere, polito moldatu ziren.

BAKARKAKOAN, POTO

Bakarkako lanean etorri zen saioaren beheraldia. Manex Agirrek bertso hunkigarriak bota zituen, semeari jateko duen apurra ematen dion gizon baten paperean. Somaliara jo zuen aramaioarrak eta, bertsoak egoki borobildu arren, poto batek ihes egin zion bakarkakoan. Ez zen izan poto egin zuen bakarra, ordea, Otamendik, Viñasprek eta Enbeitak huts

berbera egin baitzuten saioan barrena. Oihane Perek lan bila dabilen emakume baten larruan sartuta botatuko bertsoak izan ziren bakarkakoan aipagarrienak.

Lehen atala amaituta, eta puntuazioaren arabera, lehenengo biek egin zuten aurrera: Oihane Perea eta Iñaki Viñaspre gasteiztarrek. Seiko motzean, umorea nagusi izan zen, bai bertsoetan eta baita entzuleen barreetan ere.

Kartzelako lanean, ordea, urduritasunarengatik, behar bada, ez zuten guztiz asmatu.

ANTOLATZAILEAK GOGOAN

Sari banaketaren eta agurren ordua etorri zen gero. Oihane Perea zoriondu zuten agurrean gainontzeko bertsolariak, eta txapeldunak familia eta bertso esko-

letan diharduten emakumeak izan zituen gogoan.

Sariak ematera, Arabako bertso eskoletako ordezkariak igo ziren taula gainera. Laugarren sailkatuarena bitxia izan zen, Manex Agirre aramaioarrak Xabier Agirre aitaren eskutik jaso baitzuen saria. "Kasualitatez izan zen. Berari tokatu zitzaion laugarrenari oroigarria ematea, eta ni izan nintzen laugarren. Hala ere, ilusioa egin zidan aitak saria emateak", esan digu Manex Agirrek.

Agurrean, txapelketa antolatzen buru-belarri jardun duten Irati Lotina eta Lierni Altuna, aramaioarra, izan zituen gogoan.

Txapelketatik atseden hartuko dute orain, baina Araban bertsoetan jarraituko dute gogoz.

KULTURA > AED-REN LITERATURA LEHIAKETA

Arrasate Lehiaketan sariak eguenean emango dituzte

Kulturateko hitzaldi aretoan egingo dute sari banaketa, 18:30ean hasita; lehenago, *Berlin gaineko zerua* filmean oinarritutako ikuskizuna egongo da

UBANE MADERA > ARRASATE

XX. Arrasate Lehiaketan sari banaketa datorren eguenean, hilaren 26an, egingo dute. 19 lagunen artean banatu behar ditu epaimahaia sariak.

Lehiaketara aurkeztu zituzten 118 lanen artean aukeratu dituzte finalista horiek: 59 bertso paper, 41 ipuin, 11 poseia eta zazpi komikiren artean, hain justu ere. Lehiaketako lehenagoko eki-

taldiekin alderatuta, antzerako lan kopurua aurkeztu dute aurtengo aldira.

Sari banaketaren ekitaldia 18:30ean hasiko da, Kulturateko areto nagusian. Hori baino lehen, baina, ikuskizun bat egongo dela iragarri dute AEDkoek, Arrasate Lehiaketan antolatzaileek.

Literatura eta sorkuntzarekin lotutako ikuskizuna izango da. Hain justu, Manex Agirre aramaiorak eta Gaizka Amondarain arratiarrak Win Wenders zinema zuzendariak eta Peter Handke idazleak egindako *Berlin gaineko zerua* izeneko filmean oinarritutako errezitaldia egingo dute.

HARRITZEKO GAITASUNA

Agirrek eta Amondarainek filma ikusi eta berehala erabaki zuten haren balio literarioak irratsaio



IRABAZLEAK Argazkian 2005eko lehiaketako irabazleak azaltzen dira.

GOIENKARIA

bat merezi zuela. Hala egin zuten biek Gasteizko Hala Bedi irrastian. Amondarainek emandako azalpenen arabera, "filmak gai unibertsal ugari jorrotzen ditu, eta aitzakia ematen du bestelako testuak sortzeko". Irratsaioa abiapuntu moduan hartuta, filmeko irudiak, testuak eta musika erabiliko dute Kulturateko errezitaldia egiteko. Besteak beste, gizakiok harritzeko dugun gaitasunaren defentsa egiten dute.

Lehiaketako finalistak

Ipuinak

Josune Milan
Juan Jose Caceres
Maddi Bengoetxea
Gihane Urtzelai
Itsaso Jauregi
Jokin Mendizabal
Hasier Larrea

Iñigo Merino
Ainara Oribe
Michael Marcos

Bertso paperak

Irene Lasaga
Maddi Labayen
Xabi Igoa

Komikia

Jon Urkizu
Lexuri Doyague
Maite Sanchez

Poesia

Gihane Urtzelai
Karmen Idoate
Ainhoa Lizarralde

HAUTESKUNDEAK 07 > EAJ

Hautagai zerrenda jakinarazi du Uri Buru Batzarrak

Alkategaia, Luis Maria Apraiz, modu ofizialean aurkeztuko dute egubakoitzean, herrian, enpresatan eta unibertsitatean

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Arrasateko EAJko Uri Buru Batzarrak jakinarazi du zeintzuek osatzen duten maiatzaren 27rako hautagai zerrenda. Luis Maria Apraiz Iturraran alkategaia izango zela jakinarazi zuten joan den astean, eta gainerako hautagaiak hauek dira: Rafa Uriarren Axpe, Amaia Zeziaga Garmendia, Jose Ramon Urribarren Azpiazu, Maria Luisa Larrañaga Intxausti, Juan Karlos Garitano Eskurra, Jose Luis Galdos Bideberri, Adoracion Bello Orue, Antton Aierbe Azkoaga, Maria Cristina Larraza Ugarteburu, Ibon Arrupe Aldekozea, Sara Sagasta Uribesalgo, Francisco

Javier Aresti Biteri, Maria Arantza Akizu Olano, Ismael Errasti Larrea, Maria Amaia Azpiazu Aranburu, Jose Antonio Axpe Ziardegi, Maria Angeles Inurritegi Gorrotxategi, Ixidor Solupe Zulaika, Eli Bolinaga Urkiola eta Jose Antonio Aranguren Preboste. Ordezkoak hauek dira: Elvira Berri-Otxoa Muñoa, Jon Etxebarria Zabaleta eta Carmelo Herrarte Iria.

AURKEZPENA, EGUBAKOITZEAN

Apirilaren 26an, oraingo egubakoitza, Luis Maria Apraiz zerrenda burua aurkezteko ekitaldia egingo du Arrasateko EAJk. Egun horretan, enpresatan, unibertsitatean eta herrian zehar ibiliko dira.

Horrez gain, postaz bozkatu gura dutenendako informazio eta laguntza zerbitzua emateko gertu dago EAJ. Horretarako, astelehenetik egubakoitzera bitartean, Batzokira joatea besterik ez dago. Arratsaldeko bostetik zortziak bitartean egongo dira han.

HAUTESKUNDEAK 07 > PSE-EE

Etxebizitzen alokairua, auzoen biziberritzea eta kultura indartzea, PSE-EEren ildo batzuk

Egubakoitzean aurkeztu zuen PSE-EEK hauteskunde programa; datorren martitzenean, berriz, zerrendak aurkeztuko dituzte

U.M. > ARRASATE

Paco Gartzia alkategaia azaldu zituen egubakoitzean PSE-EEren hauteskunde programaren nondik norakoak. Zortzi ildo zehaztu zituen sozialistak.

Laburbilduz, etxebizitza sozialen beharraren aurrean, adierazi zuen etxebizitzaren alokairua bultzatuko dutela. Auzoekin lotuta, haiek eraberritzeko programa berezi bat bultzatuko dutela iragarri zuen, besteak beste, irisgarritasuna bermatzeko, auzoei ekipamendu berriak emateko –aparkalekuak, adibidez– eta auzoetako bizi-kalitatea hobetzeko. Auzoekin lotuta, gainera, iragarri zuen asmoa dutela auzoetan udal bulegoak ipintzeko, horrela, zailtasunak dituzten bizilagunei udal tramiteak egitea erraztuko dietelako. Hirigintzari dagokionez, garden-



EGOITZAN Paco Gartzia, programa aurkeztzen, PSE-EEren egoitzan.

JON BEREZIBAR

tasunarekin jokatzera konprometitu zen Paco Gartzia.

Bestalde, garraioa ere berbaigai izan zuten, herri barruko zein herrien artekoa. Herri barruari begira, bigarren linea indartzea proposatu zuen; eta herrien arteko komunikazioa indartzeko, geltoki intermodalaren alde egingo dutela azaldu zuen.

Lan kontuak ere aipatu zituen Gartzia: enpresa berriak erakar-

tzeko eta kalitatezko lana bermatuko duten proiektuak babesteko asmoa dutela jakinarazi zuen.

Ingurumenari dagokionez, berriz, Nazio Batuen Elkartean eta Europak ezarritako irizpideak betetzea da PSE-EEren asmoa.

Etorkinenganako elkartasuna, garapena bultzatzen duten proiektuei babesa eta kultura guneen –antzokia– eta Uarkaparen erabilera indartu gura dute.



DOMINGO IRALA Asfaltatuta egongo da jaietarako Domingo Irala kalea.

O.E.

HIRIGINTZA > JAIETARAKO TAPATU NAHI DUTE

Asfaltatu egingo dute Domingo Irala kalea

Jaietarako tapatuko dute eta, ostean, enpresa berriak berriro zulatuko du obrekin jarraitzeko

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Domingo Irala kalea asfaltoarekin tapatuko dute. Azpian geldituko dira orain arte egindako lanak. Erabaki horixe hartu du Udalak. "Datorren hilabeteetan, herriko jaiak dira, eta kalea ezin da dagoen moduan egon ordurako. Jende asko ibiltzen da herrian jaietan, eta pentsatu dugu onena dela asfaltoarekin tapatzea, dena laua uztea.

Kaleko merkatariari ere mesede egingo dio horrek", esan du Victoriano Gallastegi alkateak. Datoren egunetan hasiko dira Domingo Irala tapatzen.

ENPRESA BERRIA

Joan den martitzenean aurkeztu zuen Ozio enpresak proiektuaren uko-agiria. Udalak ekin dio dagoneko likidazio prozesuari, eta

enpresa berri bat kontratatzeko pleguak prestatzeari ere. "Gure asmoa da jaietarako jakitea nork jarraituko dituen obrak. Horrela, jaiak bukatu eta berehala hasiko da enpresa hori Domingo Irala kalean lanean. Horrek obren atzerapena ekarri dezakeela pentsatuz, enpresa berriari epeak gogoraziko dizkiogu, eta bete ditzala eskatuko diogu, ahal den neurrian", dio alkateak.

Domingo Irala asfaltatzeko lanak Udalak ordainduko ditu, baina ez du zenbatekoa zehaztu.



O.E.

Algodoneran 318 etxebizitza egiteko hitzarmena

Algodonerako orubean, 318 etxebizitza egitea sinatu dute Udaleko eta Adarra eta Landu eraikuntza etxeetako ordezkariak. Hitzarmenarekin, Udalak aprobetxamendu urbanistikoaren %10 jaso du, 1.903.147 euro. Orubeak 2.141 metro koadro ditu guztira, eta horren %14 Udalarena da. Egingo dituzten etxebizitzetatik 238 libreak izango dira, 55 tasatuak eta 25 babestutakoak. Orube horretan etxebizitzak egiteko, tranbiaren proiektua kontuan izan dute, eta Gabiria baserria bota egingo dute. Lanak ahalik eta lasterren hastea da asmoa.

HAUTESKUNDEAK 07 > PSE-EE

Mari Carmen Barrenetxea da PSE-EEko alkategaia

Udalak erabaki propioak hartzeko ahalmen handiagoa izatea bermatu nahi du sozialistak

O.E. > BERGARA

Mari Carmen Barrenetxea da PSE-EE alderdiko zerrenda burua. Bera da alderdi horrek Bergarako Udalera aurkeztu duen alkategaia. Donostian jaioa da. baina Bergaran bizi da 1980. urtetik. 49 urte eta bi seme-alaba eta biloba bat ditu. Idazkari ikasketak egin ditu, eta euskara ikasten ari da.

ERABAKITZEKO AHALMENA

Javier Zendoia Bergarako PSE-EEko presidentea eta Miguel Buen PSE-EEk diputaziora aurkeztu duen zerrenda buruarekin egin du bere buruaren aurkezpen ofiziala Mari Carmen Barrenetxeak. "Udalak autonomia eta erabakiak hartzeko ahalmen handiagoa izatea bermatu nahi


dut, eta horretarako egingo dut lan", esan du Barrenetxeak. Horrekin batera, lehentasuna zeri emango dion ere azaldu du: "enplegua, etxebizitza, hirigintza jasagarria eta osasun publikoa, adibidez".

KUDEAKETA AURRERAKOIA

Barrenetxearen aurretik hitz egin zuten Zendoiak eta Buenek, eta biek aipatu zuten "kudeaketa aurrerakoia egitea" dela PSE-EEk maiatzeko hauteskundetarako egiten duen eskaintza. "Bergarako Udalean izan dugun ordezkariak lan handia egin du herriaren alde, eta aurrerantzean ere, horrela izango da", esan du Buenek. "EAJren politika zaharkitua dago, eta geu gara alternatiba", jarraitu du.



AURKEZPENA PSE-EEko egoitzan egin dute alkategaiaren aurkezpena. O.E.



ENKO AZKARATE

KMKren aldeko pilota jai bikaina

Kilometroen aldeko pilota jaialdia aspaldian ez bezalako giroa sortu zuen egubakoitzean pilotalekuan. 600 bat lagun egon ziren. Mikel Goñirekin gogoz disfrutatu zuten, eta Muruamendiaraz eta Zezeaga etxekoek joko ere eskertu zuten ikusleek. Partidua oso orekatua izan zen, baina Goñi eta Bilbaoren alde hautsi zen azkenean (22-20).

HAUTESKUNDEAK > AURKEZPEN EKITALDIA

Karmelo Perez da Oñati Ezkerretik koalizioiko alkategaia

Ezker Batuak, Aralarrek eta Zutik-ek hauteskundeetarako osatu duten koalizioak eguenean aurkeztu zuen bere burua

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Oñati Ezkerretik izeneko koalizioak udal hauteskundeetarako duen programa ezagutarazi zuen joan den eguenean.

Karmelo Perez -Ezker Batua-Berdeak-, Miren Arregi -Aralar- eta Jose Ruiz -Zutik- dira Oñati Ezkerretik koalizioko zerrendako lehen hiru hautagaiak.

HIRU OINARRI

Hasieratik, garbi utzi zuten, hiru alderdi politiko diren aldetik, bakoitzak bere independentziari eusten jarraituko diola. Bada, hauteskundeetara elkarrekin joateko erabakia hiru printzipiotan oinarritu zuten: "Konpromiso politiko eta soziala dugu, pertsona guztien arteko eskubide-berdintasunaren alde lan egiteko eta justizia soziala bermatzeko; bestetik, apustu garbia egin nahi dugu politikaren alde, eta, azkenik, euskal gizarteak bere nortasuna eta bere etorkizunari buruz erabakiak hartzeko eskubidea duela uste dugu", azaldu zuen aurkezpen ekitaldia koordinatu zuen Manu Egañak.



OÑATI EZKERRETIK Jose Ruiz (Zutik), Manu Egaña (EB), Miren Arregi (Aralar) eta Karmelo Perez (EB).

MIREIA BIKUÑA

Oñati Ezkerretik koalizioa ezkerreko tartea betetzeko eta ordezkatzeko helburuarekin jaio dela ere azaldu zuten eguenean.

Hala, maiatzeko udal hauteskundeetarako osatu duten programa politikoa "ilusioz beteriko programa politiko eta sozial bat" da.

PROGRAMAKO ARDATZAK

Koalizioa osatzerako orduan, Ezker Batua-Berdeak, Aralarrek eta Zutik-ek planteatutako helburuak betetzeko osatu duten hauteskunde programak bederatzi ardatz nagusi ditu.

Kohesio soziala eta gizartertzea, giza eskubideak, bakerako eskubidea, normalkuntza politikoa, elkarrizketa demokratikoa, erabakitze eskubidea, hizkuntza normalkuntza, enplegu egonkorra, etxebizitza eta garapen iraunkorra, eta partadeitza oinarritutako demokrazia eta baterako kudeaketa dira aipatzen dituzten bederatzi ardatzak.

Oñatiko Sozialista Abertzaleek, 679 sinadura

Ezker Abertzaleko ordezkariak pozik agertu dira Oñatiko Abertzale Sozialistak izeneko hauteskunde elkarteak jaso duen babesarekin, sinadurak jasotzeko epea zabalik egon den bitartean, 679 sinadura bildu dituzte-eta.

Oñatiko Abertzale Sozialistek, eguenean egindako bileran, udal hauteskundeetara izen horrekin aurkeztuko den hautagaien zerrenda aurkeztu zuten herri batzarrean. Dagoeneko, erregistratu dute Oñatiko Abertzale Sozialista elkarte Gipuzkoako hauteskunde juntaren aurrean.

ZERBITZUAK

Kiroldegiko tabernaren ustiaketa, berriro lehiaketara

Maiatzaren 2an amaitzen da udaletxean eskaerak aurkezteko epea

M.B. > OÑATI

Kiroldegi berriaren taberna zerbitzuaren lehen deialdia hutsean geratu ondoren, Udalak bigarren deialdia egin du. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kaleratu ondoren, eskaerak aurkezteko epea zabalduko da, eta maiatzaren 2an amaituko da.

BALDINTZAK

Eskaria egiten duen enpresak antzerako lanetan duen eskarmentua, langileen euskara maila, ostalaritza arloko tituluak, zerbitzuaren antolaketa proposamena eta proposamen ekonomikoa dira gehien baloratuko dituzten puntuak.

Kiroldegiko taberna berriak sarrera berezia izango du. Bada, kiroldegia zabalik dagoen ordutegi eta egutegian ireki beharko ditu ateak.

Hasieran, Udalak eta maizter berriak bi urterako kontratua sinatuko dute, eta urtero berriro ahal izango dute, beste bi urtean.

OMENALDIA > OÑATIKO IKASTOLAK, 40 URTE

Txantxiku Ikastolako zuzendari eta presidente ohiei omenaldia egingo diete

Egubakoitzean, Santa Ana antzokian, arratsaldeko 8etan izango da omenaldi ekitaldia

Ganbara Abesbatzak emanaldi bana egingo du ekitaldiaren aurretik eta ondoren

M.B. > OÑATI

Txantxiku Ikastolak, aurten, 40 urte bete ditu. Urteurrenaren inguruan antolatutako ekitaldien artean, egubakoitzeko omenaldia izango da nagusia: bertan, urte hauetan, ikastolako zuzendari eta presidente izan direnak omenduko dituzte. Ekitaldia Santa Ana antzokian, 20:00etan, izango da; besteak beste, Ganbara Abesbatzak abestu egingo du.


OMENDUAK

1967tik 2007ra, 40 urte hauetan, ikastolako zuzendari eta presidente izan direnen zerrenda osatzea ez da lan erraza izan. 1973-74 ikasturteetik aurrera, ikastolako erregistro liburuetan, datu horiek agertzen dira.

Bada, 1969tik 1973ra arteko datuak biltzea nekezagoa izan da; oraindik ere, hasierako urteetako datu batzuk falta zaizkie.

Ikastolako zuzendari izan dira hauek: Eli Igartzabal (1967tik 69ra), Euxebi Osa, Paulo Anduaga (74tik 79ra eta 80tik 82ra), Maite Agirre, Eli Etxeberria eta Pili Irazabal (79tik 80ra), Anjel Elortza (82tik 86ra), Andoni Zendoia (86tik 2006ra) eta Jabi Agirre (gaur egun).

Halaber, presidente lanak bete dituzte Joseba Otalorak (69tik 70ra), Eli Galdosek (73tik 79ra), Jesus Mari Igartuak (79tik 81era), Lurdes Idoiak (81etik 85era), 87tik 89ra eta 93tik 95era), Jose Ramon Aranburuk (85etik 87ra), Andres Zabalak (89tik 91ra), Jesus Mari Ugartek (91tik 93ra), Konsuelo Urizarrek (95etik 97ra), Jerardo Agirrek (97tik 2001era), Juan Carlos Mugartzak (2001etik 2003ra) eta Mikel Iturrospek (2003tik).



LOGOTIPOA Txantxiku Ikastolako urteurreneko logotipoa.

GOIENKARIA

ESKORIATZA > EMAKUMEENDAKO DEFENSA PERTSONALA

Emakumeendako defentsa pertsonal ikastaroa emango dute pilotalekuan

Udalak emakumeei zuzendutako defentsa pertsonalaren ikastaroa egingo du maiatzaren 12an eta 13an. Eskoriatzako Kempo Taldeak emango ditu eskolak

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Maiatzaren 12an eta 13an, emakumeei zuzendutako defentsa pertsonal ikastaroa emango dute pilotalekuan. Udalak antolatu du, eta Eskoriatzako Kempo Taldeko lagunak izango dira irakasleak. Interesatuak kultura etxera jo beharko dute, maiatzaren 7a aurretik, eta matrikula 20 eurokoa izango da.

Eskoriatzako Kempo Taldeko zuzendari tekniko Rafa Carrietek azaldu digu emakumeei zuzendutako halako ikastaro gero eta gehiago egiten dituztela, "zoritzarrez, sexu indarkeria kasu asko daudelako".

ERASOAK SAIHESTEKO

Kempo taldeko arduradunak azaldu digute oso ariketa errazak irakatsiko dituztela, ikastaroan esku hartzeko ez dela prestakuntza fisiko berezirik behar, eta ez dagoela inolako lesio arriskurik. "Bi egun gutxi diren arren, etor-



ARIKETA ERRAZAK Argazkian, Eskoriatzako Kempo Taldeko arduradunak Madrilen ikastaro bat ematen. Oso ariketa errazak direla jakinarazi dute.

GOIENKARIA

tzen diren emakumezkoen arriskua neurtzen eta erasoari aurre egiten irakatsiko diegu", azpimarratu du Kempo taldeko zuzendari teknikoak.

Ariketa errazak direla eta zailtasunik ez dutela azpimarratu dute antolatzaileek. Are gehiago, interesatuei jakinarazi diete ikastaroan, ondo pasatzeaz gain,

"defendatzeko gailuak ikasi, dauzkagun gaitasunak ezagutu eta gaitasun berriak hartuko ditugula. Horrez gain, arazoei garrantzia kentzen ere ikasiko

dugu, askotan ez da premiazkoa eta indarra erabili beharra. Bukatzeko, azpimarratu gura dugu defentsa pertsonala jakiteak ez gaituela oldarkor egiten".

ARETXABALETA > GARBIKETA ZERBITZUAK

Eraikinak eta bideak garbitzeko lehiaketak

Udalak aldi berean atera ditu lehiaketa publikora herriko eraikin publikoak eta kaleak garbitzeko zerbitzuen kontratazioa

I.B. > ARETXABALETA

Aretxabaleako Udalak lehiaketa publikora atera ditu eraikin publikoak garbitzeko kontratazioa eta baita bide garbiketaren kontratazioa ere.

Lan horietaz azken urteotan arduratu diren enpresek bete dute Udalarekin hitzartutako epea, eta horregatik, Udalak erabaki du lan horiek berriro lehiaketa publikora ateratzea.

GIZARTERATZEAREN ALDE

Udalaren helburua da, eraikin publikoak garbitzeko kontratazioa egiterakoan, lan merkatura sartzeko zailtasunak dituzten taldeak gizarteratzearen ahalegin-tzea. Hala, enpresa edo talde jakin batek gizarteratzearen aldeko lana

egiten badu, Udalak aintzat hartuko du hori kontratazioa egiterakoan.

20 EGUNEKO EPEA

Martitzenean argitaratu zituzten, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, bi lehiaketa horien gaineko oharrrak. Hala, interesatuak gaurtik, astelehena, aurrera, 20 egun izango dituzte lehiaketan izena eman eta euren eskaintzak aurkezteko.

Udal eraikuntzak garbitu eta lan merkatuan sartzeko arazoak dituzten kolektiboak gizarteratze-ko kontratazioa 171.200 eurokoa da; kale garbiketa zerbitzuena, berriz, 338.000 eurokoa.

Udaleko Lan eta Zerbitzuen sailean dago informazio guztia interesatuendako eskuragarri.



GARBITZEKO MAKINA Makina bat, Aretxabaleako plaza garbitzen.

MIRARI ALTUBE

ESKORIATZA

Munduko ipuinak kontatuko dituzte

I.B. > ESKORIATZA

Kataia eten barik ekimen erraldoiaren barruan, hainbat ekitaldi antolatu dituzte herrian. Zapatuan egin zituztenez gain, gaur, astelehena, eta eguenean, ere egongo dira hainbat.

Bi egun horietan, umeendako munduko ipuinak kontatuko dituzte Udal Bibliotekan, 18:00etan. Helburua da beste kultura eta hizkuntza batzuk ezagutaraztea.

Gaur, astelehena, Antonio Monteiro portugesak *O principe com cabeça de cavalo* - *Printze zaldiburu* irakurriko du, portugesez eta euskaraz. Eguenean, berriz, Oiaume Ouchen berebereak hainbat ipuin arabiar irakurriko dizkie joaten diren umei.

ARAMAIO > DANTZA TALDEAREN 50. URTEURRENA

Bikain irten zen dantza taldekoen omenaldia

Lagun Artean dantza taldea orain 50 urte sortu zuten 18 kideak omendu zituzten dantzariak atzo

Herri osoak egin zuen bat jaialdiarekin, eta kiroldegia txiki geratu zen denak hartzeko

LEIRE KORTABARRIA > ARAMAIO

"Dena oso-oso ondo irten da; sekula ez dugu Aramaion horrenbeste jende batera ikusi". Horrela azaldu zuten Lagun Artean Aramaio dantza taldeko kideak atzo, domeka, taldeko sortzaileei egindako omenaldiak izan zuen arrakasta. Eguraldia lagun, aramaiorrek gogoz bat egin zuten ospakizunarekin, eta kanpoan bizi diren taldekide ohiko asko ere herri-ira bueltatu ziren jaialdirako.

OMENALDIA

Eguerdin inguruan hasi ziren ekin-tzak; lehenengo, parrokian, meza entzun zuten, eta, Luzaideko doinuek lagunduta, kalejiran joan ziren kultura etxeraino. Han, Bixente Mondragonek dantza taldearen 50 urteotako argazkiak batuta egin duen muntaia ikusi zuten, hogeit hamar minutuko.

Segidan, une hunkigarrieta-ko bat etorri zen, Lagun Artean sortu zuten 18 lagunak omendu zituztenean. Ramon Ormaetxeak irakatsitakoak ziren haiek. Taldearen argazki bana eman zieten, markoztatuta. Betidanik taldearekin ibili izan diren bost txistulariak ere omendu zituzten, eta txapel bana eman zieten. Miren Aginagalde, orain 50 urte, eskuz, taldearen bandera josi zuen emakumea ere omendu zuten; haren etxera joan eta lore sorta bat opari egin zioten.

KIROLDEGIA, BETETA

Omenaldia eta gero, berriz ere kalejiran eta giro alaietan, kiroldegira joan ziren; "bete-bete eginda" zegoen, taldekideen esanetan.



ADIN GUZTIAK Aspaldiko ikasleak dantzan, umeak begira daudela. J. ARANTZABAL



EMAKUMEAK Lehengo eta oraingo dantzariak hartu zuten parte. J. ARANTZABAL

Ordu beteko dantzaldia egin zuten han 50 urteotako ikasle eta ikasle ohiek, 6-7 urtetik 70 urte inguru bitartekoak. Bazkaldu ondoren, erromeriaz gozatu zuten.

ESKERRAK

Urtarrilean hasitako lanaren emaitza izan zen jaialdia, eta

Lagun Artean taldeak "eskerrak" eman gura dizkie lagundu duten eta parte hartu duten guztiei. Taldekideen esanetan, lan handia izan arren, behin hasita, dena ondo joan zen eta uste baino hobeto moldatu ziren.

Urteurren egun zehatza uztailearen 7a du dantza taldeak.

ELGETA

Alkategai aurkeztu dute Oxel Erostarbe

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Oxel Erostarbe izango da Aralar-Independenteak izeneko zerrendaren burua Elgetan, maiatzeko udal hauteskundeetarako. Asteon egindako batzar irekiaren ondotik jakinarazi dute erabakia Elgetako Aralarako kideek.

Erostarbek 28 urte ditu, eta Aralarren Gipuzkoako koordinatzailea da. Lanbidez, irakaslea da, eta lau urte daromatza zinegotzi moduan Elgetako Udalean. Aurreko udal hauteskundeetan, alkateztatik bost botora geratu zen.

'HERRITIK HERRIRAKO'

Elgetak aldaketa "behar-beharrezkoa" duela uste du Aralarrek, eta *Herritik herrirako* alternatiba osatzeari ekin diotela jakinarazi dute.



Oxel Erostarbe.

GOIENKARIA

ANTZUOLA

Erretiratuek, zuzendaritza batzorde berria

Apirilaren 14an, urteko batzar orokorra egin zuen Antzuolako Erretiratuen Elkarteak eta, besteak beste, zuzendaritza batzordea berritu zuten. Honako hauek osatzen dute batzorde berria: Florentino Lamarianok, Isidoro Quintanak, Angelita Enak, Karmele San Sebastianek, Lourdes Arregik, Joxepa Aiastuik, Miguel Montorik eta Antonio Juradok. Lehenengo hirurak berriak dira. Salbador Olabarriak, Andoni Azkaratek eta Miren Arangurenak laga dute batzordea. Lamariano da presidente berria.



AINTZANE IRIZAR

LEINTZ GATZAGA

Landa Ingurune diputatua, bisitan

L. KORTABARRIA > LEINTZ GATZAGA

Rafael Uribarren, Foru Aldundiko Landa Ingurune Garapeneko diputatua, herrian izan zen joan den martitzenean, ibar osoan egin zuen bisitaren barruan. Tartean, bere sailak antolatu zituen larre batzuk ikusten egon zen, Olaunen eta Pago Ederren. Horrez gain, Gaztainuzketa auzoa eta gatz museoa ere bisitatu zituen. Gatzagaz gain, Urkulun eta Oñatin ere egon zen diputatu arrasatearra.

PISTAK BERRITU

Nekazaritza sailarekin lanean dihardu Udalak, besteak beste, pista batzuk berritzeko laguntza eskuratzeko, batez ere, Olaunen.

Kirola



> **FUTBOLA**
Mondrak sufrituta irabazi zuen Hondarribiaren aurka > 18



> **ESKUBALOIA**
Bergarako gazteek kopako lehen partidua irabazi zuten > 19



> **SASKIBALOIA**
Eskoriatzako neskek 49-20 irabazi zioten Ordiziari > 20



> **SASKIBALOIA**
Aloñako mutilek Irun Basket taldea menderatu zuten Zubikoan > 20

MENDIKO LASTERKETA > ALOÑAKO HIRUGARREN IGOERA

Aloñako jaitsieran hartu zuen abantaila Xabier Olabarriak

PODIUMA

Xabier Altzola gasteiztarra eta Julen Garitano antzuolarra ere, podiumean

PARTE-HARTZAILEAK

279 korrikalarik parte hartu zuten Aloñako Igoeraren hirugarren edizioan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Eguraldi eta giro bikainekin jokatuta zuten atzo Aloñako Igoeraren hirugarren edizioa. Xabier Olabarria Etxebarria izan zen azkarrena Oñatik helmugan: 1:15:55.

Orozkoko korrikalariarekin batera, Xabier Altzola gasteiztarra eta Julen Garitano antzuolarra igo ziren podiumera.

Halaber, emakumeen lasterketa Alicia Romerok irabazi zuen, 1:33:31ko denbora eginez. Nerea Amilibia eta Alma de las Heras sailkatu ziren bigarren eta hirugarren tokietan.

279 PARTE-HARTZAILE

Goizeko hamarrak eta erdietan hasi zen Aloñako Igoeraren hirugarren edizioa. Plazan, giro eguzkitsua zegoen, halaber, Aloñan, 14 gradu zeuden.

Plazatik kanposantura eta, handik, San Juan ermitara egin zuten korrikalariak. Lamiategitik jaitsita, Xabier Olabarria eta Imanol Etxebarria iritsi ziren lehenengo Urtiagain ingurura. Leku har-



PODIUMA Irabazleak, sariak jaso ondoren: Xabier Altzola; Xabier Olabarria, semearekin; eta Julen Garitano, alabarekin.

MIREIA BIKUÑA

tan, Alma de las Heras izan zen emakumerik azkarrena.

Jarraian, probako maldarik gogorrenak igo zituzten. Belarren, Etxeberriak hartu zion aurrea Olabarriari. Hala, abantaila txiki hura aprobetxatu zuen Aloñara lehen tokian iristeko. Beasaingo korrikalariak 50 minutu eta 56 segundo egin zituen Aloña gainera iristeko; emakume azkarrena, hor, Alicia Romero izan zen.

Tontorra egin eta gero, korrikalariak beherako bidea hartu zuten. Bide hori Uribarritik egin zuten, Lezesarri auzotik igaro eta, San Estebango ermitatik, plazara iristeko.

Hala, jaitsiera aprobetxatu zuen Xabier Olabarriak proba irabazteko: Belarretik eta Gorodotik, hura pasa zen lehen tokian. Halaber, Gorordon, Imanol Etxebarria zen bigarrena; baina, azken

metroetan, bidean galdu zen beasaindarra, eta segundo batzuk galdu zituen. Hortaz, Xabier Altzolak, Julen Garitanok eta Asier Urdanpilletak aurrea hartu zioten Etxeberriari.

Aurkaririk gogorrena atzean utzita, Olabarria bakar-bakarrik iritsi zen helmugara. Haren atzetik, Altzola, Garitano, Urdanpilleta eta Etxebarria sailkatu ziren.

DEBAGOIENDARRAK

Irteeran zeuden 279 parte-hartzaileetatik 62 debagoiendarrak ziren. Hauek izan ziren Debagoieneko onenak: Julen Garitano antzuolarra, hirugarrena; Asier Urdanpilleta oñatiarra, laugarrena; Aritz Kortabarria arrasatearra, zazpigarrena; Ernesto Lorenzo oñatiarra, bederatzigarrena; Joxean Larrea oñatiarra, 23.a; Iñaki Arriaran oñatiarra, 36.a, eta Jon Aizpeurrutia oñatiarra, 41.a.

ESANAK

"Igoeran, Etxeberriak jarritako erritmoari eutsi diot; hala, jaitsieran, niri komeni zitzaidan erritmoa jarri dut"

Xabier Olabarria > Irabazlea

"Oso ederra da lasterketa osoan hainbeste jarraitzaile ikustea: makina bat txalo eta animu jaso ditugu"

Alicia Romero > Lehenengo neska

"Beroarekin, ondo moldatzen naiz; hala, igoera espero baino hobea izan da. Gustura nago egindako lanarekin"

Julen Garitano > Ibarreko lehena

sailkapenak

LEHENENGOAK

1. Xabier Olabarria	1:15:55
2. Xabier Altzola	1:18:46
3. Julen Garitano	1:19:16
4. Asier Urdanpilleta	1:19:28
5. Imanol Etxebarria	1:19:44
6. Juanjo Igartzabal	1:21:03
7. Aritz Kortabarria	1:21:46
8. Mikel Navarro	1:21:46
9. Ernesto Lorenzo	1:21:57
10. Arkaitz Zamakona	1:23:48
11. David Conde	1:24:11
12. Clemente Bravo	1:24:56
13. Koldo Urrestarazu	1:25:18
14. Aritz Iturbe	1:25:21
15. Jose Luiz Pozo	1:25:38
16. Luis Ezeizabarrena	1:25:42
17. Aitor Conde	1:25:59
18. Beñat Urtzelai	1:27:18
19. Alfonso Manterola	1:27:20
20. Etorre Barbeito	1:27:46
21. Ruben Larrinaga	1:27:50
22. Pello Agirrebeitia	1:28:02
23. Joxean Larrea	1:28:11
24. Jokin Gabilondo	1:28:19
25. Mikel Legarreta	1:28:35



UDA Elkartea, pilota saila

Goitik hasita, lehenengo ilaran, ezkerretik eskumara: Jon Etxeberria, Beñat Urrutia, Gorka Perez de Labeaga eta Unai Gardoki. **Goitik hasita, bigarren ilaran, ezkerretik eskumara:** Josu Lasagabaster, Oier Mondragon, Sergio Uriarte, Joseba Akizu, Odei Oion, Unai Urrutia eta Eñaut Gardoki. **Goitik hasita, hirugarren ilaran, ezkerretik eskumara:** Asier Zuazua, Ekain Andres, Kerman Armendia, Oier Arizabaleta, Markel Saez de Gordoia, Aitor Magallanes, Xabier Toledo, Beñat Arizabaleta eta Aitor Uribarren. **Goitik hasita, laugarren ilaran, ezkerretik eskumara:** Jon Ander Perez, Endika Bengoa, Odei Izquierdo, Jon Unanue, Zuhaitz Ezkurra, Aser Garcia, Ibon Perez de Labeaga, Julen Garai eta Xabier Etxeberria. Argazkian, Aitor Alzola, Andoni Altube, Ibon Errasti, Unai Errasti, Julen Lozano, Aimar Cebriño eta Ioritz Saez de Gordoia falta dira.



Olalde Pilota Elkartea

Goitik hasita, lehenengo ilaran, ezkerretik eskumara: Andoni Zabalo, Aitor Mendizabal, Josu Agirre, Xabin Muruamendiaraz, Jon Iturbe eta Ibai Zabalo. **Goitik hasita, bigarren ilaran, ezkerretik eskumara:** Dean Ihnatesin, Iker Altube, Jon Fernandez, Urtzi Muguruza, Mikel Jauregi, Josu Aiausti eta Jon Mata. **Goitik hasita, hirugarren ilaran, ezkerretik eskumara:** Haritz Kortabarria, Ander Aranburu, Iker Gardoki, Unai Kortabarria, Jon Etxezarreta, Mikel Arregi, Ander Fernandez eta Xabier Iparragirre. **Goitik hasita, laugarren ilaran, ezkerretik eskumara:** Jon Kotillas, Unai Larrea, Manex Balerdi, Beñat Kortabarria, Kepa Altube, Haritz Etxabe, Aiort Kerejeta eta Toheed Tarid.

de eta Ozkarbi Pilota taldeak 06-07



Eskoriatza Kirol Elkartea, pilota saila

Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Xabi Agiriano, Hodei Luarizaristi, Eneko Zubizarreta, Oier Urrutia, Alex Oiarzabal, Mikel Zubizarreta, Joseba Iñurrategi, Mikel Zubillaga eta Joseba Zubizarreta. **Behoko ilaran, ezkerretik hasita:** Aritz Urzelai, Ander Errarte, Josu Urzelai, Xabi Axpe, Beñat Diaz de Gereñu eta Asier Urzelai. Argazkian, Unai Iñurrategi, Ibai Grazia, Aitor Oion eta Mikel Errarte falta dira.



Ozkarbi Pilota Elkartea

Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Aitor, Iban, Oskar, Odei eta Etor. **Erdiko ilaran, ezkerretik hasita:** Gaizka, Jon, Josu, Jon Etor, Mikel eta Iñaki. **Behoko ilaran, ezkerretik hasita:** Ibane, Maitane, Iñigo, Unax, Uxue, Nahia eta Maria.

BOLATOKI
t a b e r n a



PREFERENTE MAILA > 29. JARDUNALDIA

Mondrak, irabazteko, asko sufritu zuen bigarren zatian

MONDRA

3-2

HONDARRIBIA

Mondra > Mikel (Ander, 65. min.), Andoni, Illart, Kepa, Alartzia, Ruben, Keixi (Gotzon, 68. min.), Josu, Murua (Julen, 89. min.), Arkaitz eta Lopez (Maikel, 76. min.).

Hondarribia > Aritz, Joseba, Hipolito, Iza (Hodei, 75. min.), Irazusta, Xabier, Ibai, Alain (Unai, 56. min.), Gaizka, Jakoba eta Gaizka (Egoitz, 82. min.).

Epailea > Lopez jauna.



BALOIA Mondrako jokalaririk Gotzon, baloia oinetan duela; haren atzean, Arkaitz, jokaldia jarraitzen.

JOSETXO ARANTZABAL

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Atxabalpen, garaipen lasaiak eta erosoak lortzea kosta egiten zaio Mondrari. Zapatuan, Hondarribiaren aurka jokaturako norgehiagoka menderatuta izan ondoren -3-1 aurreratu ziren markagailuan-, sufritzea egokitu zitzaion Igor Gordobilen taldeari.

Edozelan ere, garaipena eta puntuak Arrasaten geratu ziren. Hortaz, Mondrak 45 puntu ditu sailkapenean.

GOLAK, LEHEN ZATIAN

Zapatuko norgehiagokako ikusgarriena lehen zatian gertatu zen, bost golak lehen zatian lortu zituzten-eta.

Partiduko 20. minutua bete orduko, bi goleko errenta zuen etxeko taldeak: Rubenek eta Josuk egin zituzten golak.

Bi goleko errentarekin, partidua ondo bideratuta zuen etxeko taldeak, baina Xabierrek gola egin zuen Hondarribiarendako, 21. minutuan.

Zazpi minutu eta gero, Iker Lopezek, jokaldi pertsonal batean,

hirugarren gola egin zuen etxekoendako. Atsedenean aurretik, Muruak partidua erabakita uzteko gol aukera garbia izan zuen, baina baloia kanpora bidali zuen.

Hondarribiak jarri zuen emozioa partiduan, Xabierrek biga-

ren gola egin zuenean: 3-2ko emaitzarekin joan ziren aldageletara.

Bigarren zatian, Hondarribiak aurrera egin zuen, berdinketaren bila, baina, zorionez, ez zuen golik egin, eta puntuak arrasatearrek eskuratu zituzten.



JOSETXO ARANTZABAL

UDAK Mutriku samur hartu zuen mendean

UDAK garaipen garrantzitsua lortu zuen atzo etxekoen aurrean (4-0). Sailkapenean azkenaurreko dagoen Mutrikuren bisita jaso zuten aretxabaletarrek. Etxekoak nagusi izan ziren jokoan, batez ere, bigarren zatian. Lehenengo gola Igor Arenazak egin zuen, lehenengo zatian. Bigarrenean, UDAkoak gehiago izan ziren eta, hala, hiru gol egin zituzten; golegileak Igor Arriaga, Iban Espinosa eta Gari Dublan izan ziren.



JOSETXO ARANTZABAL

Aukera gutxi sortu zituen Aloñak

Aloña Mendik 1-2 galdu zuen atzo Azkoagainen, sailkapenean hirugarren dagoen Zestoaren aurka. Oñatiarrek nahiko partidu txarra egin zuten; oso aukera gutxi sortu zituzten, batez ere, lehenengo zatian. Hala, atsedenean, huts eta hutseko berdinketa erakusten zuen markagailuak. Gero, Zestoa 0-2 aurreratu zen eta, lehia amaitzeko hiru minutu falta zirela, Moiuak Aloñaren gola egin zuen.

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Zarautz	61	29
2. Hernani	52	29
3. Zestoa	49	29
4. Ordizia	46	29
5. Mondra	45	29
6. Trintxerpe	43	29
7. Berio	43	29
8. Anaitasuna	43	29
9. UDA	43	29
10. Touring	40	29
11. Aloña Mendi	36	29
12. Aurrera	34	29
13. Idiazabal	32	29
14. Hondarribia	29	29
15. Martutene	27	29
16. Pasaia	25	29
17. Mutriku	24	29
18. Urola	20	29

Emaitzak

Aloña Mendi-Zestoa	1-2
Zarautz-Aurrera	1-0
Trintxerpe-Ordizia	0-0
Mondra-Hondarribia	3-2
Idiazabal-Hernani	2-2
Berio-Pasaia	1-1
Anaitasuna-Martutene	1-1
Touring-Urola	2-1
UDA-Mutriku	4-0

Hurrengoak

Aloña Mendi-UDA	
Zestoa-Zarautz	
Aurrera-Trintxerpe	
Ordizia-Mondra	
Hondarribia-Idiazabal	
Hernani-Berio	
Pasaia-Anaitasuna	
Martutene-Touring	
Urola-Mutriku	

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONALA

Usurbil-Bergara	1-0
-----------------	-----

BIGARREN ERREGIONALA, IGOERA

BTLs-Ikasberri	2-1
Mariño-Elgeta	3-1
Gazteak-Antzuola	1-12

BIGARREN ERREGIONALA, KOPA

Urki-Mondra	1-0
UDA-Eibartarrak	4-0

EMAKUMEZKOAK, IGOERA

Zarautz-Mondra	5-0
BTLs-Eibartarrak	2-0

EMAKUMEZKOAK, KOPA

Aloña Mendi-Urola	1-2
Arizmendi-UDA-Urki	8-2

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

Aloña Mendi-Anaitasuna	2-1
Elgoibar-UDA	0-1
Burumendi-Mondra	3-7

OHOREZKO GAZTEAK, KOPA ETA JAITSIERA

Urola-Bergara	1-2
---------------	-----

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, IGOERA

Hernani-UDA B Arizmendi	4-1
-------------------------	-----

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, KOPA

Zestoa-Antzuola	6-0
Bergara-Zarautz	3-6

OHOREZKO KADETEAK, IGOERA

UDA Arizmendi-Vasconia	4-1
Bergara-Kostkas	2-0

OHOREZKO KADETEAK, KOPA ETA JAITSIERA

Arrasate-Lagun Onak	0-3
Allerru-Aloña Mendi	3-3

LEHENENGO MAILAKO KADETEAK, KOPA

Amaika Bat-Bergara B	2-1
----------------------	-----

KADETE NESKAK, TXAPELDUNEN FASEA

Aloña Mendi-B-Inxaurdi	0-2
Zarautz-Arizmendi-UDA B	2-2

EMAKUMEZKOAK, ZORTZINAKO FUTBOLA, KOPA

Arizmendi-UDA-Zumaiaiko	9-1
-------------------------	-----



ERASOAN Bergarako jokalariek eraso eraginkorra egin zuten atzo Labegarietan.

JOSETXO ARANTZABAL

IGOERA FASEA

Etxetik kanpoko lehiak, gogorrak

ALIPENDI

30-28

BERGARA

A.G. > BERGARA

Euskadiko txapelketarako iguera fasean, etxetik kanpo jokatzen diren partiduak gogorrak izaten dira; eta halakoa izan zen, zapatuan, Bergarak Gasteizeko Alipendi taldearen aurka jokatutako norgehiagoka.

Joxetxo Muniategiren mutilek nahiko partidu eskasa jokatu zuten. Gainera, kontra izan zituzten hainbat faktore. Alde batetik, Bergarako taldea bi baja garrantzitsuekin joan zen Gasteizera: Larrañaga eta Uribe gabe aritu ziren mahoneroak, eta haien falta nabaritu egin zen. Bestetik, bergararrak kezu ziren, partidu amaieran, epailearen lanarekin.

KONTRAERASOAN, HUTS EGIN

Norgehiagoka nahiko parekatua izan zen; partidu guztian, etxeok aurretik izan arren, ez zuten abantaila handia hartu. Bergarak, gainera, bigarren zatiko 30 minutuetatik 12 jokalaria bat gutxiagorekin jokatu zituen.

Lehia amaitzeko bi minutu falta zirela, mahoneroek gol batera jartzeko aukera izan zuten; baina, kontraerasoan huts egin eta ezerezean geratu zen jokaldia. Azkenean, 30-28 galdu zuen Bergarak. Datorren astean, atsedena izango dute mahoneroek; hurrengo lehia Urdulizen izango da.

BERGARA

37-31

UROLA

Bergara > Etxezarreta, Egaña (4), Gantxegi (8), Sevillano (3), Etxeberriarteun (3), Agirre (2), Urbina (6), Unamuno (4) eta Orgaz (7).

Urola > Ugarteburu (2), Gonzalez, Korkostegi (2), Gutierrez (1), Cid, Aleman (6), Serrano (7), Elizburu (1), Moran (4), Agirre (1), Aizpuru, Urtzelai (2), Martin eta Mantxola.

Golak > Atsedenean: 15-16.

GAZTE MAILA > KOPA TXAPELKETA

Garaipena, kopako lehenengo jardunaldian

A.G. > BERGARA

Kopa txapelketako lehenengo jardunaldian, arazo barik hartu zuen Bergarak Urola mendean. Hala ere, Bergarak gogor egin behar izan zuen lan garaipena lortzeko; atsedenean, 15-16 atzetik ziren etxeok jokalaria, baina, bigarren

zatian egindako lanari esker, Bergarak 37-31 irabazi zuen.

BIGARREN ZATIAN, GORA

Bigarren zatian, Bergarak aurrea hartu zuen markagailuan, eta errenta horri azkenera arte eutsi zioten mahoneroek.

Partidua amaitzeko 10 minutu falta zirela, Urolak errenta bi golera murriztu zuen, baina, azkenean, Bergarak gora egin zuen, eta 37-31 irabazi zuen lehia.

Maiatzaren 6an, Arrateren aurka neurtuko ditu indarrak Bergarak Labegarietan.

KADETE MAILA > KOPA TXAPELKETA

Aloñak galdu egin du kopako lehenengo lehia

VERKOL ALOÑA

18-20

EREINTZA

osatzeko erabiltzen dira. Hala, zapatuan, Zubikoan, infantil mailako 10 jokalarirekin aritu zen Aloña Mendi.

BERDINTZEKO AUKERA ONA

Andoingo Leizaran taldea nagusi izan zen zapatuan; hasieratik jarri ziren markagailuan aurretik andoaindarrak. Atsedenera, 8-11 atzetik heldu zen etxeok taldea. Bigarren zatian, hobeto jokatu zuen Aloñak. Hala, poliki-poliki, etxeok gora joan ziren eta, lehia amaitzeko bi minutu falta zirela, gol bakarrera jartzeko aukera izan zuten. Azkenean, baina, oñatiarrek ezin izan zuten partidua berdindu, eta 18-20 galdu zuten.



LEHIATSUA Aloñak lehia berdintzeko aukera izan zuen.

JOSETXO ARANTZABAL

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Aloña Mendiko kadete mailako neskek, zapatuan, kopa txapelketako lehenengo norgehiagoka jokatu zuten, eta ezin esan hasiera ona izan zutenik; izan ere, oñatiarrek 18-20 galdu zuten Andoingo Leizaranen aurka.

Kopa bezalako txapelketak behetik datozen jokalariei tartea eman eta datorren urterako taldea

emaitzak

MAILAZ MAILA

EUSKADIKO GOREN MAILA
Villamediana-Verkol Aloña atzeratuta

EUSKADIKO TXAPELKETARAKO IGOERA FASEA
Alipendi-Bergara 30-28

LEHENENGO TERRITORIALA, KOPA
BKL-Aloña Mendi 20-28
Pulpo-Arrasate Eskubaloia 24-23

GAZTE MUTILAK
Bergara-Urola 37-31

GAZTE NESKAK, UDABERRI SARIA
Ereintza-Verkol Aloña 17-21
Verkol Aloña-Leizaran 16-17

KADETE MUTILAK
Aloña Mendi atsedena
Gatz Museoa Jakion-Katilu 23-40

KADETE NESKAK
Arrasate atsedena

GIPUZKOAKO TXAPELKETA > SENIOR MAILA

Hirugarren tartean eman zion buelta lehiari Aloñak

Atsedenean markagailuan zuten zortzi puntuko desabantaila azken bi tarteetan murriztu zuten oñatiarrek

ALOÑA MENDI

77-69

IRUN BASKET

Aloña Mendi > Alex (9), Beñat, Igor, Eneko (1), Blanco (21), Iban (4), Julen (6), Iñigo (15), Mendiola (7), Alain (8) eta Gorka (6).

Irun Basket > Mora (19), Sagues (21), Martinez (2), Santos (15) eta Dominguez (12).

Laurdenetako emaitzak > Lehenengo laurdena: 19-15. Bigarren laurdena: 33-41. Hirugarren laurdena: 62-50. Laugarren laurdena: 77-69.

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Senior mailako igoera faseko partidua jokatu zuten, zapatuan, Zubikoan, Aloñak eta Irun Basket taldeak. Irundarrak bost jokalarirekin bakarrik agertu ziren partidura; hala, lehia erraza izango zela zirudien. Baina Gorka Judezek zuzentzen duen taldeari,

kosta egin zitzaion partiduko kontrola lortzea. Edozelan ere, garai-pena etxekoek eskuratu zuten.

MARKAGAILUAN, ATZETIK

Partiduko lehen laurdena oñatiarrek menderatu zuten. Hasierako minutuetan, bi taldeek saskiratze errazak lortu zituzten erasoan. Une haietan, etxekoek agintzen zuten markagailuan; hala, lehen laurdenean, gehieze ere, lau puntuko errenta izan zuten: 10-6 eta 19-15.

Baina, bigarren laurdenean, norgehiagoka goitik behera aldatu zen. Irun Basket taldeak 0-11ko partziala egin zuen lehen minutuetan, eta buelta eman zion markagailuari (19-26). Halaber, etxeko taldeari kosta egin zitzaion lehen saskiratzea egitea. Horregatik guztiagatik, irundarrek zortzi puntuko tartea zabaldu egin zuten.

Bigarren tartea amaitzeko hiru minutu falta zirela, bi puntura hurbildu ziren etxekoak (31-33); baina irundarrak, 0-6ko partzialari esker, abantailarekin iritsi ziren atsedenera (33-41).



ERASOA Alain Anton, saskiratzea egiteko gertu.

JOSETXO ARANTZABAL

ETXEKOAK, HOBETO

Atsedeneko aholkuak entzun ondoren, etxekoek hobeto ekin zioten norgehiagokari. Izan ere, hirugarren tartearen hasieran, 8-0ko partziala egin zuten Gorka Judezen mutilek; hala, partzial hark partidua menderatzeko aukera eman zien berriro ere.

Tarte hartako bigarren berdinetaren ondoren (46-46), Aloña Mendik 16-4ko partziala egin zuen;

hala, laugarren tartearen hasiera 12 puntuko errentarekin iritsi ziren oñatiarrek.

Laugarren eta azkeneko tartean, Irun Basket taldeko jokalariek nekea nabaritzen hasi ziren, eta, hori aprobetxatuz, oñatiarrek zortzi eta 13 puntu arteko errentari eutsi zioten markagailuan.

Hala, garai-pena etxean gertatu zen. Aloñak seigarren garai-pena eskuratu zuen.

SENIOR NESKAK > 21. JARDUNALDIA

Aurkari ahulari samur egin zion aurre Eskoriatzak

ESKORIATZA

49-20

ORDIZIA

TARTEA, BIGARREN LAURDENEAN

Lehenengo laurdena nahiko parekatua izan zen. Ordiziakoak markagailuan aurretik ibili arren, amaieran 15-10 aurretik jarri zen Eskoriatza. Bigarren laurdenean, saskiratze bakarra jaso zuen Eskoriatzak. Bada, 9-2ko partziala egin da, Eskoriatza 24-12 nagusi zen markagailuan. Zapatuan, etxekoak defentsan oso ondo aritu ziren.

IGOERA FASEA, ESKORIATZAN

Maiatzaren 12an eta 13an, Eskoriatzan, bigarren maila nazionalerako igoera fasea jokatu da. Igoerako txartela lortu guran, sailkapeneko lehenengo lau taldeak arituko dira, tartean Eskoriatza.

ARANTZAZU EZKIBEL > ESKORIATZA

Partidu samurra izan zuen Eskoriatzak zapatuan etxean; aurrean, sailkapenean azkenaurreko postuan dagoen Ordizia izan zuten eskoriatzarrek. Inongo arazo barik, etxeko neskek 49-20 nagusi ziren. Hala, sailkapeneko bigarren postuari eusten diote Txema Sanchezen neskek.



JAURTIKETA Irudian, Heriz, saskiratzea egiteko gertu.

JOSETXO ARANTZABAL

IGOERA FASEA

Hirugarren laurdenean galdu zuen Candyk

KEVIAN SPORT

62-51

CANDY

A.G. > BERGARA

Atsedenean, bi puntuko abantaila zuen Bergarako Candy taldeak, baina, hirugarren laurdenean egindako joko txar-raren ondoren, Candyk partidua galdu zuen Donostian.

IRABAZTEN HASI ZEN

Lehenengo zatian, Candyk joko ona egin zuen; hala, partiduko lehenengo puntuak mahoneroentzat izan ziren. Bergararrak 0-6 aurreratu ziren lehenengo minutuetan.

Atsedenean, Bergarak bi puntuko aldea zuen markagailuan. Aldagelatik bueltan, baina, bergararrek behera egin zuten; hirugarren laurdenean, 10-0ko partziala jaso zuten kontra, eta hor, partidua apurtu egin zen. Laugarren eta azken laurdenean, mahoneroek ezin izan zuten ezer egin markagailuari buelta emateko.

ZALEEN ANIMUEN BEHARRA

Igoera fasea amaitzeko lau jardunaldi falta dira; orain, Candy sailkapeneko bigarren dago. Igoera txartela sailkapeneko lehenengo hirurek lortuko dute.

Datorren zapatuan, Candyk Bar Iraetaren aurka jokatu du, Labegarietan, 16:00etan. Bergarako zuzendaritza taldeak zaleak partidua ikustera joateko dei egin du.

emaitzak

MAILAZ MAILA

SENIOR MUTILAK

Aloña Mendi-Irun Basket	77-69
Kevian Sport-Candy	62-51

SENIOR NESKAK

Eskoriatza-Ordizia	49-20
Alde Zaharra-Aloña Mendi	58-23

GAZTE MUTILAK

Internacional-Aloña Mendi	30-64
Mugarri Alkesa-Ordizia	78-67

GAZTE NESKAK

Kortazar Txirrita-Zarautz	36-50
Internacional-Eskoriatza	50-35

KADETE MUTILAK

Bergara-Krafft	38-40
Easo Ibaia-Ford Mugarri	49-57
Construcciones Alkesa	atsedena
Easo-Aloña Mendi	65-48

OÑATI

Saskibaloian gustura ibili ziren neskak zapatu goizean

GIRO POLITA Giro ona izan zen saskibaloian jokatzeko, eta 3. eta 4. mailako neskek jakin izan zuten nola ondo pasa eta baloia saskian sartu

BETI ANIMATZEN Nesken artean animuak elkartrukatzuz eman zituzten partiduen minutu guztiak; lagun artean ibili ziren baloiaz batera eta bestera

AZKENEAN POZIK Saskiraketa onak izan ziren, eta neskak, irabazi ala galdu, guztiak pozik irten ziren kiroldegitik taldekideekin, denak batera

KOLDO CARRILLO > OÑATI

Saskibaloia izan zen joan den zapatuan 3. eta 4. mailako neskei egokitu zitzaizen kirola. Zapatuan, goizeko 10:30ean, bildu ziren talde guztiak Oñatiko Zubikoa kiroldegian.

Jokatzeke zeuden partiduei dagokienez, 3. mailako neskak aritu ziren, batetik, Erbiak Katuak taldearen aurka. Bestetik, 4. mailako neskei dagokienez, Haritza Altza taldearen aurka ikusi ahal izan genuen, kantxan, nork saskiratze gehiago egin.

Gustura ziruditen neskak saskibaloian jokatzeko, eta ez zioten taldekideak etengabe animatzeari utzi. Giro polita izan zen Zubikoa kiroldegian, kanpoko eguraldi onak ere lagunduta, eta guraso dezentek hurbildu zen bertako harmailetara umeak kirola egiten eta lagun artean ikusteko. Moldatu ziren neskak pixka bat handi gelditzen zitzaizkien baloi eta saskiekin, nola edo hala; edozein modutan ere, ikusi genituen saskiratze batzuk, eta taldekideak segituan zihozten lagunarengana, zoriontzera.

Begiraleek ere, etengabe animatzen eman zuten goiza, eta umeak pozik izan ziren kantxaren alde batetik bestera korrika eta baloia saskian sartu guran.

Bukaeran, ezin inor goibel zegoenik esan, guzti-guztiak, irabazi ala galdu, alai eta irribartsu irten ziren polikiroldegitik eta gustura pasatako goiza izan zela aitortu. Gainera, behar zuenari, igoko zion animuak kanpoan zen eguzkiak.




Haritza. Itxasok, Helenek, Amaiurrek, Ixiarrek, Zuriñek eta Iratik osatzen dute taldea.



Erbiak. Izarok, Mainerrek, Nereak, Leirek, Nagorek, Ainhoak, Maialenek, Itziarrek, Naroak eta Ainhoak osatzen dute talde hori.



Katuak. Leire, Ane, Enara, Uxue, Kristina, Sanira, Amaia, Leire eta Ane dira taldekideak.



Altza. Ane, Ainara, Olatz, Itsaso, Ainize, Oneka, Miren eta Nagorek osatzen dute taldea.

ERRAZA EGITEN ZAIZUE PORROTAK ONARTZEA?



Amaïur O., Maider eta Amaïur B.
Altza



Enara eta Leire
Katuak



Sara eta Nerea
Altza



Itziar eta Ainhoa
Erbiak

"Ez dugu arazorik porrotak onartzeko", dio neska hirukote honek aurrena. "Ondo pasatzera gatoz hona", baina, irabazi ahal badute, hobeto dela gaineratzen dute. Egia esan, ez die axolarik galtzeak. "Ez da inor haserretzen galtzearen", argitzen dute, haserrearen gainean galdetuta. "Ondo pasatzea da garrantzitsua", esaten dute argi, "lagunekin kirola egin eta jolastea".

"Ondo pasatzera gatoz hona", esaten du Leirek, zalantza barik. Enarak "galtzeak parra dio", gaineratzen du. "Taldea ondo pasatzeko da, ez irabazteko"; hala ere, aitortzen dute "irabazten badoaz, gogo gehiago" jartzen diotela jokoari.

Sarak eta Nereak ere argi daukate zertara doazen -"jokatzea da garrantzitsua"-, hala ere esaten, dute beti saiatzen direla irabazten. Haserrearen gainean, "sekula norbait haserretu da", baina oso gutxitan gertatu izan dela esaten dute Sarak eta Nereak.

"Oraingoan, irabazten goaz", adierazi dute lehenik. "Ondo pasatzea da garrantzitsua, baina", gaineratzen dute. Neska hauek, lagunekin jokatzeko, asko disfrutatzen dutela esaten dute. "Oso gutxitan haserretu da norbait galdu izanagatik; ez dio axolarik galtzeak".



*Eraman dotoretasuna
zure etxera*



gelazzo s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI

Tel.: 943 71 63 22

Faxa: 943 78 15 51

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **BANDA**
Tolosako Bandak emanaldi bikaina egin zuen atzo Bergaran > 24



> **LEHIAKETAK**
Mendekosteetako zapiaren marrazkia egiteko lehiaketa, martxan > 24



> **TXISTUA**
Euskal Herriko Txistu Alardea egin zuten zapatuan Oñatin > 27



> **ANTZERKIA**
'Solala' antzezlanak barre algarak eragin zituen Elgetan > 27

LIBURUAREN EGUNA > AZOKAK

Liburuak, eskutik eskura gurean

Gaur Liburuaren Nazioarteko Eguna izanda, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Oñatin, liburu trukaketa azokak antolatu zituzten zapatuan

Arrasaten, gaur bertan egingo dute truke azoka: 11:30etik aurrera, liburutegi txartelaren truke, liburu hartzera joan ahal izango da

EDURNE BURGAÑA > BERGARA

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen da gaur mundu zabalean, eta, Debagoienean ere, hainbat ekimen antolatu dituzte eguna ospatzeko, eta, bide batez, irakurzaletasuna ospatzeko. Adibide garbiena liburu truke azokak izan dira.

IPUIN KONTALARIA

Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzan, herenegun, zapatua, egin zituzten azokak. Oñatiko herri eskolan, ikasleek etxetik liburuak eraman zituzten, eta euren artean trukatu. Euren artean konpontzen dira gaztetxoak: etxeko liburu zaharrei beste erabilera bat emateko bidea da. Irakurzaletasuna bultzatzeko beste modu bat ere erabili zuten guraso elkar-terkoek; izan ere, 17:00etatik aurrera, Rosa Maria Martinez ipuin kontalaria egon zen Oñatiko Errekalde herri eskolan.

Baina Oñatikoa ez da asteburuan egin den truke azoka bakarra izan. Aretxabaletan ere, 11:00etatik 13:30era, Algara ludotekan antolatu zuten azokatxoak. Eta gaztetxoek sekulako gogoia erakutsi zuten. Izan ere, Maider Etxaniz gazteria teknikariak azaldu duenez, "10:45erako, ume mordo agertu zen truke azokan. Beraz, jarritako ordua baino lehenago hasi ginen. Gainera, mutikoei egin dute guztia: ludoteka kanpoan antolatu dugu azoka,

eta eurek jarri eta kendu dituzte mahaiak".

Aretxabaletan, beste herri askotan bezala, irakurzaletasuna eta asko dago. Baina harrigarria mutiko baten kasua izan zen: "22 liburu ekarri ditu etxetik mutikotxo batek", adierazi du, txundituta, Etxanizek.

ARRAKASTA HANDIA

Azokaren ostean, ipuin kontalaria ere eduki zuten Aretxabaletako haurrek. Irati Pagoagaren inguruan eserita 40 umetik gora egon ziren adi-adi. Gazteria teknikariak azaldu duenez, "azoka eta ipuin kontalaria herriko ume guztientzako zabalik egon da, ez soilik ludotekako bazkide direnentzako, eta arrakasta handia lortu du aurtengoan".

Eskoriatzan, zapatu arratsaldean, 18:00etatik 21:00etara, plazan jarri zuten azoka. Herriarrek apirilaren 19aren aurretik Udal bibliotekara eramandako liburuak zeuden bertan, mahaietan banatuta. Giro ederrean pasatu zuten arratsaldea Eskoriatzan, eta parte-hartzea handia izan zen.

Gaur, Arrasaten, 11:30etik aurrera, Kulturategiaren lehenengo solairuan, liburu zaharren eta errepikatuen azoka jarriko dute. Iaz, liburutegiko txartel bakoitzeko, bi liburu har zitezkeen; aurtengoa, liburuak zenbatzean erabakiko dute. Azokara joaten denak bertan jasoko dituzte azalpenak.



UMEAK Azokaz, Aretxabaletako umeak arduratu ziren.

JOSETXO ARANTZABAL



GIRO EDERRA Jende asko ibili zen Eskoriatzako plazan jarritako azokan.

JOSETXO ARANTZABAL

LEHIAKETA > MENDEKOSTE JAIK

Jaietako zapien marrazkiak aurkezteko azken eguna maiatzaren 9a izango da

Mendekoste jaietako kartel lehiaketa ere martxan dago; lanak emateko azken eguna zapatua da

Zapiendako marrazki lehiaketako irabazleak 60 euro irabaziko ditu; programarenak, 600 euro

EDURNE BURGAÑA > BERGARA

Bergarako Mendekoste jaiak gerturaten daudela ikusita, herriko Jardun euskara elkarteak, aurtengoan ere, jaietako zapiendako marrazki lehiaketa martxan jarri du.

ESKUZ ZEIN EUSKARRI DIGITALEAN

Lehiaketan parte hartzeko bete beharreko lehenengo baldintza Bergaran errolatua egotea da. Hortik aurrera, ez dago adin mugarik ezarrita.

Marrazkia DIN-A4an aurkeztu beharko da, eskuz zein euskarririk digitalean eginda. Gainera, jaiak eta euskara uztartuko dituen lelo bat ere jarri beharko da, eta jaiekin lotutako gaia jorratu beharko dute lehiaketara aurkeztu nahi dutenek.

Lanak honako helbidera bidali behar dira: Jardun Elkartea, Errotalde jauregia z/g, 20570 Bergara; edo gaztejardun@topagunea.com helbide elektronikora. Horretarako azken eguna maiatzaren 9a da.

Ezizen batekin sinatu beharko dira lanak, egilearen nortasuna agerian laga barik. Gero, kartazal itxi batean, izen-abizenak, adina, telefonoa eta helbidea zehaztu beharko dira. Irabazleak 60 euro jasoko ditu.

Baina zapiendako marrazkiena ez da martxan dagoen lehiaketa bakarra. Udalak jaietako programaren azalarena ere antolatu du. Bigarren horretan ere, parte hartzeko, Bergaran errolatua egotea bete beharreko lehenengo baldintza da.

PROGRAMA

Kartelek 40 x 60 zentimetroko neurria izango dute, DIN-A3 neurriko paperean inprimatuta eta kartoizko oinarri baten gainean aurkeztuta. Baita informatika euskarrian ere —CDan edo disketean. Teknikari dagokionez, libre da.

Nahi eta nahi ez, honako testua agertu beharko da egindako lanetan: *Pentekoste Jaiak 2007 Bergara*.



ZAPIA Bitorianatxoren igoserarekin batera jantzen dute zapia bergarrek lepoan; irudian, iazkoa.

ARTXIBOA

Atzealdean lelo batekin aurkeztu beharko dira lanak, eta gutunazal baten kanpoan, lelo bera, eta, barruan, egilearen datuak. Lanak zapatuko 14:30 baino lehen aurkeztu behar dira kultura etxean.

Irabazleak 600 euro jasoko ditu. Saria eman gabe ere gera daiteke, epaimahaia gutxieneko kalitatea ez dagoela uste badute. Horrez, gain, Udalak hala nahi izanez gero, aurkeztutako lane-

kin erakusketa antolatu ahal izango du, eta erakusketa itxi eta 30 eguneko tartea egongo da lanak jasotzeko. Saritutako lana Udalaren esku geratuko da, eta nahi duena egin ahal izango du.

KONTZERTUA > TOLOSAKO MUSIKA BANDA, BERGARAN

Tolosako Bandak emanaldi borobila egin zuen frontoian

Bergarako Musika Bandak 175 urte bete ditu aurten; ospakizuneko ekimenen artean, Tolosakoa entzuteko aukera egon zen atzo

E.B. > BERGARA

175 urte ez dira egunero betetzen, eta Bergarako Musika Bandak badauka zer ospatua. Urteurrena betetzeko, ekimen bat baino gehiago egin dituzte; berriena, atzo. Tolosako Musika Bandak kontzertua eskaini zuten Bergarako pilotalekuan.

ENTRETENIGARRIA

12:30ean hasi zen emanaldia, eta, kanpoan zegoen eguraldia iku-



TOLOSARRAK Argazkian, Tolosako Musika Bandako musikariak.

GOIENKARIA

sita, esan behar da jende asko bildu zela Tolosakoek musika entzuteko.

Joaquin Ortigaren *Calahorra* pasodoblea, Beethovenen *Egmont* obertura, Shostakovitchen *The second Waltz*, *Los miserables* filmeko soinu banda, Iñaki Urkizuk

molatutako *Jaialdia* eta *James Bond 007* abestiak jo zituzten. Kontzertu entretenigarria izan zen; alaia, giroa bezalakoa.

Amaitzeko, Alfredo Gonzalez Chirlaquek Tolosako lehiaketa baterako aurkeztutako obra bat ere jo zuten.

LEHIAKETA > ESKORIATZAKO UDALAK DEITU DU

'Mundua Bertan' lehiaketako lehenengo galdera bota dute

Eskoriatzako Udalak hizkuntza eta komunikazioari bultzada emateko sariketa abian jarri du

E.B. > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak *Kataia eten barik* egitasmoa sortu du eta, horren barruan, hizkuntzari eta komunikazioari bultzada emateko, *Mundua Bertan* lehiaketa jarri dute martxan.

LAU GALDERA

Lau aste iraungo du lehiaketak, eta edonork parte hartu dezake. Beharrezko bakarria Internet edukitzea da. Izan ere, parte hartu ahal izateko, Eskoriatzako Udalaren webgunean —

www.eskoriatza.net— sartu, eta bertan dagoen lehenengo galderari erantzun behar zaio.

Lehenengo galderan, Ternuan aurkitutako euskal arrantzaleen hilarrian jartzen duena egungo euskarara itzuli behar da. Erantzunak posta elektronikoz bidali behar dira lehiaketak@eskoriata.net helbidera, eguna baino lehen. Erantzunarekin batera, izen-abizenak, adina, helbidea eta telefono zenbakia jarri beharko dira.

Guztira, lau galdera egingo dituzte *Mundua Bertan* lehiaketan, eta laurak ondo erantzun dituzten lehiakide guztien artean, MP4-a eta liburu batzuk banatuko dituzte.

Irabazlearen izen-abizenak maiatzaren 25ean, egubakoi-tza, jakinaraziko dituzte Eskoriatzako Udalaren webgunean eta egun horretan argitaratuko den GOIENKARIAN.

Gainerakoek ikusten
ez dutena ikustea,
eta pentsatu aurretik
ere egin ahal izatea.

Pentsatzea, plangintza egitea,
eraikitzea, desiratzea edo amestea.
Dei egiozu nahi duzun moduan.
Honek du axola: zuk ikusten
baduzu, **kutxak**
ere bai, lasai.



zer nahi duzu bihar?

LEHIAKETA > EUSKAL HERRIA ZUZENEAN

Gwayav-ek lortu du finalerako txartela

Zapatu gauean Euskal Herria Zuzenean lehiaketa jokatu zuten Arrasateko gaztetxean

EDURNE BURGAÑA > ARRASATE
Arrasateko gaztetxean, Euskal Herria Zuzenean lehiaketako finalerdia jokatu zen zapatuan. Bertan, Iori (Hendaia), Gwayav (Angelu) eta Klakson (Zumarraga-Antzuola) taldeek hartu zuten

parte, eta bigarrenak irabazi zuten finalerako txartela.

FINALA, MAIATZAREN 5EAN
Beste hiru finalerdi ere egin dira Euskal Herriko hainbat herrietan, eta Gwayav taldearekin bate-

ra arituko diren finalistak La rue des pavots, Okerman eta Stand By izango dira. Finala maiatzaren 5ean izango da, Biarritzko Atabal gelan.

Euskal Herria Zuzenean Festivalaren parte da lehiaketa. Jaialdia, Zuberoako Idauze Mendin izango da ekainaren 29an eta 30ean, eta uztailaren leian, eta bertan joko du irabazleak.



KLAKSON rockeroak finalerdian izan ziren.

ARTXIBOA

Renta
'06
Errenta

Eman eta jaso.

Zure ekarpena, denon mesede.

Adineko pertsonak, ezgaitasunari laguntzak, Beasain-Durango, Leidor, Aiako Harria-Arditurri, denontzat kirola, I+G+b... Gipuzkoa hiria.



www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta

902 100 040

APIRILAREN 20tik EKAINAREN 25era



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

LIBURUAREN EGUNA

'Estilo ariketak', Kulturaten 19:00etan

Raymond Queneauren 'Estilo ariketak' liburuaren antzezpena egingo dute gaur

E.B. > ARRASATE

Mundu osoan Nazioarteko Liburuaren Eguna ospatzen da gaur, apirilaren 23an. Arrasaten ere, ekimen asko antolatu dituzte, ospakizunekin bat egiteko asmotan. Liburu truke azoka egingo dute Kulturateko lehenengo solairuan, aste guztian zehar, eta *Estilo ariketak* deituriko liburuaren irakurketa eta antzezpena, besteak beste.

AKTOREAK, IRAKURLE

Raymond Queneauren *Estilo ariketak* liburuaren irakurketa egingo dute Karlos Zabala, Amaia Beobide eta Eneko Olasagasti aktoreek.

Liburuan 99 modu ezberdinetan idatzitako narrazioa kontatzen du Queneauk. Ekitaldian parte hartuko duten hiru aktoreek horietatik 12 bat interpretatuko dituzte.

Hitzordua 19:00etan izango da, Kulturateko Areto Nagusian.

> HIZKUNTZA

Japoniera-Euskara Hiztegia osatzen ari da Arrasateko Goi-hata

Goi-hataren webgunean, www.goihata.com, japonieratik euskarara eta alderantziz itzultzeko hiztegi bat aurki daiteke. Osatzen ari dira oraindik, eta laster 20.000 hitzetik gora edukiko ditu.

Euskarazko termino bat idatzi, eta japonieraz hiru eratarik bila daiteke esanahia: kanji eta kana ortografia sistemetan, eta romanji, latindar alfabetoan.

Goi-hatakoen hitzetan, "Japoniak eta Euskadik asko daukate elkarrengandik ikasteko, eta elkarren mesederako. Hiztegia helburu horrekin egin dugu".

ANTZERKIA > 'SOLALA' UMOREZKO ANTZEZLANA

Barre algara etengabea eragin zuen 'Solala' antzezlanak Espaloian

Ia 200 lagun bildu zen Elgetako Espaloian, antzezlanaz gozatzeko eta barre egiteko

Areto ikuskizun onena eta Madrilgo umore antzerkiko espektakulurik onena aitortu zuten

A.G. > ELGETA

Barrea. Barre algara. Horixe da *Solala* antzezlanaren ikusten duenak egiten duena: barre, tripako mina sortu arte, eta, hala ere, ezin geratu. Arrazoiren batengatik eman zizkioten, 2005ean, aretoko ikuskizun onenaren eta Madrilgo umore antzerkiko ikuskizun onenaren sariak.

BARREA SORTZEN

Emakume bat bakarrik oholtza gainean: Cristina Medina. Bakarrik, baina bost ume aurrera atera beharrean. Izan ere, gizona gerran dagoen bitartean, emakumeak aurre egin behar dio bizitzari, eta, batez ere, etxea alokairuan jarri dionari. Zela edo hala, alokairua kobratu nahi dion horri.

Pez en Raya taldearen ikuskizuna da, eta, beste behin ere, umore absurdoan lantzen dute. Egoera ezberdinekin jolastan dute antzezlanaren, kasu honean, parodia lantzen.

Lehen esan bezala, antzezlaneko emakumeak etxeko jabe lizunari aurre egin behar dio. Pertsonaia hori benetako berrikun-

tza da antzezlanean: Cristina Medina aktoreak berak aulkian bultzaka daroan panpina da.

Halako batean, jabea hil egiten da, eta, horrekin, istorioa amaitu egingo delakoan dago ikuslea, baina ez. Emakumeak heroi bati deitzen dio laguntzeko, eta bideoaren pantailan agertzen da bat. Pantaila horretan, zinema mutuko errotiluak ere proiektatzen ditu Medinak.

Aipatzekoa da Cristina Medina bera bakarrik irteten dela oholtza gainera, eta, batez ere, hasieran egiten duen bakarrikizketa. Publikoari zuzentzen zaio, eta hasiera-hasieratik berarekin egotea lortzen du.

Horren atzetik, bere bost umeen heriotza zoroak eta beste hainbat gertakizun datoz. Antzerkiko fazeta asko lantzen ditu aktoreak, umore absurdoan barneratuta eta zinema mutuko errotiluak erantsita.

Ez dauka istorio sakon bat eratu beharrik barrea sortzeko. Puztu gabe, pertsonaia barregarria lortzen du. Barre egiten da, barre egiteagatik. Eta nola, gainera! Ahoko mina egin arte.



PANPINA Antzezlaneko protagonistetako bat etxeko jabea da, Medinak bultzaka mugitzen duen panpina.

JOSETXO ARANTZABAL

MUSIKA > EUSKAL HERRIKO TXISTULARIEN ALARDEA

Giro ederra sortu zuten txistu doinuek

Oñatiko 24. Txistularien Alardea egin zuten zapatuan, plazan, eta jende mordo bildu zen

Emanaldia borobiltzeko, dantza, bertsoak eta abesbatzen parte-hartzea ere egon zen

A.G. > OÑATI

Bi urtean behin egiten dute Oñatiko Txistularien Alardea. Joan zen zapatukoa 24. edizioa izan zen, eta sekulako giroa sortu zuen herriko plazan.

MUSIKA HERRIKOIA

Euskal Herriko txoko askotatik etorritako txistulariak aritu ziren

alardean. Horiekin batera, Oñatiko Musika Bandako metalak, Aloña abesbatza, Oñatz dantza taldea eta Oñatiko bertso eskolakoak aritu ziren; guztiak, Lander Diaz de Gereñu Olabarriaren zuzendaritzapean.

Aurtengo ekitaldia, gainera, Migel Bianen omenez antolatutakoa izan da. Mezu bat ere sor-

tu zuten: Migel: Txistu soinuak dirauen artean gurekin egongo zara. Eskerrik asko. Maiatzaren 8an, bi urte beteko dira Biain hil zela, eta Oñatiko txistulariek euskal dantzaren eta txistuaren alde egindako lana eskertu zioten zapatuko ekimenean.

BI URTERO

Ansorenaren *Segurako alborada*, Demetrio Iriarteren *Zorionak*, Aita Madinaren *Kontradantza*, Karlos Sanchez Ekizaren *Hiru dantza nafartar*, *Erreberentzia-Ezpatadantza*, Hilario Olazararen *Mendigoizaleak*, Ansorenaren *Idiarena*, Eusebio Basurkoren *Minuetoa*, *Hiru Damatxo*, hori ere Ansorenarena, Agirregomezkortaren *Arrate* eta Ansorenaren *Isil-Isilik* abestiek osatu zuten emanaldia.

Musika herrikoia eta ezaguna izan zen, eta bertan bildutako jendea gustura egon zen.

Alardea sortu zutenean, urtero antolatzen zuten, baina, 1994. urteaz geroztik, bi urtean behin antolatzen dute oñatiarrek. Beste bi urte egon beharko gara, beraz, berriro ere ekimen horretaz gozatzeko.



TXISTULARIAK Argazkian, zapatuko ekimeneko partaideak.

JOSETXO ARANTZABAL

astea GOITBn


Astelehena, 23



> Aloñako igoeraren jarraipena 21:15

Atzo jokatu zen III. Aloñako igoera eta, gaur gauean, Julen Iriondok aurkezten duen *Harmailatik* saioak jarraipen zehatza egingo dio.

Martitzena, 24



> 'Berbaire' egungo gaiez blai dator gaur ere 21:15

Gaurko gonbidatuak hauek izango dira: Arrate Landa eta Urko Lopez irakasleak, Mikel Lezamiz soziologoa eta Larraitz Ugarte abokatua.

Eguaztena, 25



> Bergarako bertso saioa, ikusgai 21:45

Erramu zapatu-ko bertso saioaren bigarren zatia eskainiko da gaur. Egaña, Paya, Elortza, Iturriaga, Mendiluze eta Lujanbio ikusiko ditugu.

Eguena, 26



> 'Musikantoi' saioan, musikaz gozatzeko aukera 21:45

Ixone Serranok aurkeztuta, Euskal Herriko musika taldeen bideoklipak ikusteko eta bitxikeriak jakiteko aukera izango dugu.

Egubakoitza, 27



> Politika eta gizarte gaiak, 'Hitz bitan' saioan 21:45

Goierri Telebis-tak ekoizten du *Hitz bitan* saioa eta. Iñaki Leturiaren eskutik. aktualitatezko gaiak jorratu-ko dira gaur ere mahai inguruan.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Calimero.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Teknopolis.
- 14:15 Ikusten.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Ilunpean.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Klip@.
- 16:00 Bizitegia.
- 16:15 Kirolari.
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Calimero.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ur eta Lur.
- 18:15 Eltze beroa.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Musikantoi.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Calimero.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Erreportajea
- 22:15 Telesaila.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Didjeridu.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Ikusmira.
- 00:15 Emisio amaiera.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Boboak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Harmailatik.
- 14:15 Erreportajea.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Eltze beroa.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Hasiberriak
- 16:15 Ikusmira
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Boboak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Bizitegia.
- 18:30 Klip@.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Boboak
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Berbaire.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Erreportajea
- 22:15 Harmailatik.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Ikusten.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Musikantoi.
- 00:15 Emisio amaiera.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Calimero.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Erreportajea.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Ur eta lur
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Hasiberriak.
- 16:15 Eltze beroa.
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Calimero.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Harmailatik.
- 18:15 Eltze beroa.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Musikantoi.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Calimero.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Erreportajea.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Bertso saioa.
- 22:15 Telesaila.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Ur eta lur.
- 00:15 Emisio amaiera.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Boboak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Bertso saioa.
- 14:15 Erreportajea.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Eltze beroa.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Telesaila.
- 16:15 Ikusmira
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Boboak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Eltze beroa.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Bizitegia.
- 19:30 Klip@.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Boboak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Berbaire.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Musikantoi
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Erreportajea.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Ilunpean.
- 00:15 Emisio amaiera.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Calimero.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musikantoi.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Iragana gogoratu.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Eltze beroa
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Calimero.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Bertso saioa.
- 18:15 Erreportajea.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Calimero.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Hitz bitan.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Kirolari.
- 00:15 Emisio amaiera.

arrasate irrata

FM 107.7

> Liburuaren eguna eta Arabako bertso txapelketa 11:10

Gaur, astelehena, Liburuaren Eguna, Xabier Olarra egongo da autobusean, Arrasaten aurkeztuko duen liburuarekin, 11:10ean. Segidan, Manex Agirre bertso-laria igoko da.

Astelehenetik egubakoitzera

- 10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Lorategiaren geltokia
Zozketak
Zorion agurren geltokia
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
- 12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegia
- 14:00 Igo autobusera! (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00
Arrasate Irratiko albistegi laburra
- 17:15 Zorion agurren tartea (errep.)

Zapatua

- 10:00 Asteko gainbegiratua.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Calimero.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Hitz bitan.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Kirolari.
- 00:15 Emisio amaiera.

Domeka

- 10:00 Asteko gainbegiratua

gertutik



Andoni Agirregomezkorta Aktorea

"Telebistan agertzen diren aurpegietako bat baino ez naiz"

AMAIA ZALDUA > BERGARA

Andoni Agirregomezkorta *Vaya Sema-nita*-n ikusten dugu astero, baina ibilbide luzea egin du. Donostiako IVIM agentzian eta Arte Eszenikoen tailerrean ikasi zuen. Tabernetan bakarriketak egin ditu, antzerkian ere ibili da, eta, gaur egun, telebistan dabil.

Euskal estereotipoa zara?

Izatekotan, *monotipoa*. Inolaz ere ez! Euskal estereotipoaren topiko batzuk betetzen ditudan arren -sexuarena, esate baterako-, asko jota, telebistako aurpegietako bat besterik ez naiz. Gure saioan erabiltzen ditugun estereotipo eta topikoak umorea egiteko tresnak dira, baina horrek ez du esan nahi euskaldun guztiak horrelakoak garenik.

Komediatik irtetea pentsatu duzu?

Bai, noski. Izan dut lana komediatik kanpo, baina ez da nire lan komikoak bezain ikusia izan. Rol komikoetatik ateratzen ez banaiz, atea ixten ditut etorkizunerako.

Andoni serioa ala komikoa da?

Jende askok dio telebistan baino serioagoa naizela. Hori eta telebistan baino gazte, altu eta argalagoa naizela -ederragoa naizela, inork ez. Kaka! Normala da: jendeak telebistaren bitartez bakarrik ezagutzen nau eta, han, astean 75 minutu pasatzen ditut, umorea egiten. Ezin dut horrela uneoro bizi! Hala ere, esango nuke xelebrea naizela, serioa baino gehiago.

Zer da lotsa?

Lo... zer? Serio hitz eginda: lotsategia ez izan arren, lotsa apur bat badut. Batzuetan, hain ezaguna ez izatea gustatuko litzaidake, kalean lasai-lasai ibili ahal izateko, seme-ari edozein aitak seme-alabei egiten dizkien tontakeriak egin ahal izateko, inguruko begiradak gainean izan gabe. Baina, gure lanaren ondorioak dira horiek; ez gintuen inork behartu lan hori aukeratzera.

Gerora, zer egin nahiko zenuke?

Telebista ez den edozer: antzerkia, zinema, irrata... Txantxa da (barre). Antzerkia faltan igartzen dut. Droga bat da: eszenatoki bat zapaldu gabe denbora luzea pasatzen baduzu, *monoa* sortzen zaizu.

asteko hitzorduak

Ipuin kontaketa



ESKORIATZA

> Gaur, astelehena, umeentzako ipuin kontaketa berezia izango da

Gaur, arratsaldeko seietan hasita eta Munduko Ipuinak izenburu duela, umeentzako ipuin kontaketa izango da Eskoriatzako liburutegian. Esan bezala, hainbat herrialdetako ipuin ezagunak tartekatuko dira kontaketa.

Hitzaldia




ARETXABALETA

> Eguenean, apirilak 26, bidaien inguruko hitzaldia egingo dute

Hitzaldian, *Nire lehen bidaia* ikusentzunezkoa ikus ahal izango da. Ekitaldia 19:00etan hasiko da, udaletxe zaharrean izango da. Rosak, Mikelek eta Eki txikiak Euskal Herrian zehar bizikletan egindako itzulia azalduko dute.

Kontzertua



OÑATI

> Raul Lasa bakarlarik kontzertua eskainiko du oraingo zapatuan

Apirilaren 27an, zapatua, Raul Lasa bakarlarik arrasatearra izango da Portu tabernan. Kontzertua arratsaldeko zazpietan hasiko da, eta pop-rock estiloko musika izango du ardatz. Abestietako hitzak espainolez dira.

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Udaberria heldu da eta baita jaiak ere!

Bergarako Udal pilotalekuak gelditu gabeko martxa izan du aste bukaeran. Egubakoitzean, Kilometroen aldeko jai ospatu zen: **Goñi-Bilbao** eta **Muruamendiaraz-Zezeaga** bikoteak aritu ziren pilotan. Aspaldian ez bezalako giroa sortu zen pilotalekuan, bai barruan eta bai kanpoan. Goñik, pilotari handiek bezala, izugarritzko jarraitzaile taldea duela erakutsi zuen: haur eta gaztetxoak isildu barik aritu ziren Goñiren ize-na oihukatzen. Nafarrak bere ohiko jokoa egin zuen: pilo-


"Goñik ohiko jokoa egin zuen: joko ikusgarria eta huts nabarmenak egin zituen nafarrak"

takada ikusgarriak eta huts nabarmenak uzartu zituen.

Oñatin, berriz, bizikleta-poteoa eta mendi lasterketa izan ditugu aste bukaeran. Bietan, giroa izugarria izan da. AHTren aurkako aste bukaeraren barruan antolatutako ekitaldia izan zen. Mendi lasterketa, berriz, gaur, hankako mina dela eta lanera joan ezin dutenentzat antolatutako ekintza da. Nik ere, ingeleseko klase barik geratuko nintzela uste nuen, baina ez da horrela izan: **Matthew-k** onik bukatu du Aloñako igoera.

Eta beste lasterketa mota bat: Oñatiko jaiak bukatu arte, ia aste bukaera guztietan izango da ospakizunen bat. Laster, San Migel Txikiak!

asteburuko albuma



Plazatik zerura begira. Ilatargi Astronomia Taldeak antolatuta, behaketa izan zen zapatu gauean Oñatiko plazan. Ilunabarreko izar distiratsuen, Artizarra, ikusi zuten lehenengo, baita honen inguruan zebilen Ilargia eta Saturno planetaren eraztuna ere. ISS (Nazioarteko Espazioko Ontzia) Oñati gainetik pasatzen ere ikusi zuten, baita Iridum satelite baten flasha ere. Plazako argiak itzali egin zituzten, behaketa egokia egiteko, eta bertaratutakoek gozatu egin zuten.



1940an jaiotako enospakizuna.

Zapatuan elkartu ziren, urtetako ohiturari jarraituz, 1940an jaiotako 25 gizonetako arrasatear. San Juan Bataiatzailearen parrokiaren, meza entzun zuten lehenengo, eta, erdiguneko tabernetan txikiteoa lagun giroan egin ostean, denek batera bazkaldu zuten Amaika Gazte elkartearen. Bapo bazkaldu ondoren, mahaia-aren bueltan berba eta berba artean, kanturik ere ez zen falta izan. 1940an jaiotakoena garai batean Arrasateko kintadarik handienetakoa zela esan digute, baina, pixkanaka, gero eta gutxiago elkartzen dira urteroko ospakizunean. Hala ere, ahal duten arte, lagun artean batzen jarraituko dutela esan digute.



Ettxeren kontzertua. Eskoriatzako Inkernu tabernan, giro polita izan zen egubakoitze gauean, Etxe musikariak eskainitako kontzertua zela eta. *Bidea eginez* disko berriko abestiak aurkezteaz gain, aurreko laneko kantuek entzuteko aukera ere eskaini zuen. *Hori da dena* abestiarekin amaitu zuen kontzertua, eta entzuleak ere kantuan jarri zituen. Disko asko saldu zituen, eta baita autografoak sinatu ere.

Esparrago-dastatzea. Hogeita hamar lagun inguru elkartu ziren egubakoitze gauean Bergarako Pertxa elkartearen. Nafarroako Esparragoaren Jatorri Izen Espezifikokoaren Kontseilu Erregulatzailaren presidentek, Martin Barbarinek (argazkian), Nafarroako zainurien berezitasunak azaldu zituen. Ondoren, Nafarroatik ekarritako esparragoak probatzeko aukera izan zen, ardoz lagunduta, gainera. Gauza berriak ikasita eta tripa beteta, gustura geratu ziren hitzordura azaldutakoak.

PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: astelehena@goiena.com

hildakoak

•Dolores Herzog Carton.

Caceresen, apirilaren 14ean. 90 urte.

•Maria Malavia Talavera.

Oñatin, apirilaren 16an. 75 urte.

•Felix Anduaga Irizar.

Oñatin, apirilaren 16an. 85 urte.

•Fernando Sanchez Pescador.

Bergaran, apirilaren 17an. 63 urte.

•Timoteo Martin Lazaro.

Arrasaten, apirilaren 17an. 85 urte.

•Lorenzo Peña Etxeberria.

Aretxabaletan, apirilaren 19an. 80 urte.

•Tomas Uranga Olabe.

Arrasate, apirilaren 19an. 87 urte.

•Joakin Zurutuza Lazkano.

Bergara, apirilaren 19an. 68 urte.

•Nicasio Muguruza Alberdi.

Antzuolan, apirilaren 20an. 84 urte.

•Dominga Etxeberria Beitia.

Oñatin, apirilaren 21ean. 86 urte.

•Benito Arnaiz Gomez.

Antzuolan, apirilaren 22an. 67 urte.

•Ramon Guridi Irazola.

Bergaran, apirilaren 22an. 72 urte.

•Benita Abarrategi Abarrategi.

Arrasaten, apirilaren 22an. 84 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
943 25 05 01

Eskelaren prezioa: 87 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100 €.**

GOIENKARIA: astero, 45.000 irakurle.



zorion agurrak



ARRASATE
Itziar Lopez de Arkaute Guridi
Apirilaren 2an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, lankideen partetik!



ARRASATE
Uxue Balantzategi
Apirilaren 3an, 11 urte. Zorionak eta patxo haundi bat, etxeuon partetik, potxola!



ARETXABALETA
Josune Blanco
Apirilaren 11n, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeuon partetik!



ESKORIATZA
Nagore Arriolabengoa Beitia
Apirilaren 16an, 4 urte bete zituen. Zorionak eta muxu handi bat, etxeuon partetik!




ARRASATE
Goio Arana
Apirilaren 17an, urteak. Zorionak eta urte askotarako! Lankideak.



ARRASATE
Lide Azkarate
Apirilaren 18an, urtebete. Zorionak! Amatxo, aitatxo eta lehengusu Oihanen partetik.



ARETXABALETA
Amagoia Lasagabaster
Apirilaren 19an, urtebetetzea. Zorionak, guapa! Muxu handi bat eta laster arte. Lagunak.



ARETXABALETA
Jon Ugaldel
Apirilaren 19an, 3 urte betetzen ditu. Zorionak eta muxu handi bat. Izeba eta osaba eta, bereziki, Maitane.



ANTZUOLA
Marijo Deogracias
Apirilaren 19an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako! Lankideak.




BERGARA
Elene Lazpita
Apirilaren 20an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat! Etxekoak, bereziki anaia Alatz.



ARRASATE
Imanol Soriano
Apirilaren 20an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, lankideen partetik!



BERGARA
Mireia Larrañaga
Apirilaren 21an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, lankideen partetik!



ARETXABALETA
Danel Sarasua Gonzalez
Apirilaren 21ean, 6 urte. Zorionak etxeuon guztien partetik, eta kiloka muxu!



OÑATI
Miren Sanz de Galdeano
Apirilaren 22an, 9 urte. Zorionak, tia Mertxe, tio Luxiano, Gorka eta Andoniren partetik!



OÑATI
Ander Murillo
Apirilaren 22an, 6 urte. Zorionak, aiton-amonak, ama, aita eta Maidarren partetik, eta muxu handi bat!



BERGARA
Olaitz Agirrezabal
Apirilaren 22an, 3 urte bete zituen. Zorionak eta muxu handi bat! Etxekoak, bereziki Urko.



BERGARA
Antxon Santamaria
Apirilaren 22an, 3 urte bete zituen. Zorionak eta muxu handi bat, etxeuon partetik!



ESKORIATZA
Alaitz Salaberria Beitia
Apirilaren 22an, urtetxo bat. Zorionak eta muxu handi bat, Iñaki, Antton eta etxeuon partetik!



BERGARA
Maria Elkoroberezibar
Apirilaren 23an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, aitita, amama eta Eliren partetik!



OÑATI
Markel Regueiro Plazaola
Apirilaren 23an, 2 urte betetzen ditu. Zorionak eta muxu handi bat! Aita-ama puntakuen eta etxeuon partetik.



BERGARA
Mikel Igartza
Apirilaren 24an. Zorionak lehen urtebetetzean, aita-txo, amatxo eta anaia Xabierren partetik!




ARRASATE
Aitor Murgiondo
Apirilaren 25ean, 6 urte. Zorionak, Arizmendi Sanvi Txikiko lagunaren partetik!



ARETXABALETA
Aner eta Igotz Idigoras Anduaga
Apirilaren 24an eta 25ean, 4 eta 2 urte. Zorionak biei, eta urte askotarako!




ARRASATE
Gorka Lezeta
Apirilaren 25ean, 6 urte. Zorionak, Arizmendi Sanvi Txikiko lagunaren partetik!



BERGARA
Ramon Agirrezabal
Apirilaren 26an, urtebetetzea. Zorionak, aitatxo! Asko maite zaitugu! Olatz eta Urko.



ARETXABALETA
Zelestino Okaranza
Apirilaren 26an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak eta, bereziki Maitane.



ARRASATE
Eneko Garcia Garai
Apirilaren 28an, 3 urte. Zorionak etxeuon eta Piliren partetik!



BERGARA
Iban Da Silva
Apirilaren 21ean, 28 urte bete zituen. Zorionak eta urte askotarako! Sherezade, Jasmina, Marisa eta Paco.



ARRASATE
Ixone Serrano
Apirilaren 28an, urtebetetzea. Zorionak, *Itxosne!*

jaiotakoak



Hodei Iglesias Porto
Arrasate > 4,130 kg. Apirilaren 4an. Gurasoak: Belinda (Bartzelona) eta Luis Fernando (Aretxabaleta). Argazkian, Hodei, kuman.



Itziar Bengoa Mujika
Eskoriatza > 3,160 Kg. Apirilaren 16an. Gurasoak: Iratxe (Arrasate) eta Andoni (Eskoriatza). Argazkian, umea aitaren besoetan.



Irati Muñoz Pombar
Oñati > 2,770 kilo. Apirilaren 15ean. Gurasoak: Anabel (Oñati) eta Jabi (Oñati). Argazkian, Irati jaioberria bere kumatoan agertzen da, lo.



Elene Aranguren Arregi
Oñati > 3,100 kilo. Apirilaren 15ean. Gurasoak: Amaia (Oñati) eta Gotzon (Oñati). Argazkian, Elene txikia, amaren besoetan.



Kalet Pando Egorza
Aretxabaleta > 3,280 kilo. Apirilaren 18an. Gurasoak: Eneida (Aretxabaleta) eta Jorge (Aretxabaleta). Argazkian, Kalet, amarekin eta lehengusina Eneitzekin.



Jone Piñeiro Gantxiegi
Soraluze > 3,090 kilo. Apirilaren 18an. Gurasoak: Zalao (Soraluze) eta Jose Ramon (Mutriku); izeba-osabak, bergararrak. Argazkian, Jone jaioberria, kumatoan lo.



Jon Tena Zabarte
Arrasate > 4,080 kilo. Apirilaren 20an. Gurasoak: Naiara (Arrasate) eta Adolfo (Arrasate). Argazkian, Jon jaioberria, bere kuman etzanda.



Oier Arana Priego
Aretxabaleta > 3,600 kilo. Apirilaren 21ean. Gurasoak: Mirian (Aretxabaleta) eta Joseba (Arrasate). Argazkian, Oier jaioberria, kuman.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI

Umeen paradisia

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Mikel Goñi > Pilotaria

"Inor konkistatzeko, beti izan naiz artaburua"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Kilometroen aldeko pilota partiduak izan ziren egubakoitzean Bergarako udal pilotalekuan. Umeen ondoren jardun zuten Mikel Goñik eta Bilbaok Zezeaga eta Murua-mendiarazen aurka. Lehia estuaren ostean, kanpotarrak nagusitu ziren.

Ikastolen aldeko partidua jokatuz duzu. Nola gogoratzen duzue zure eskola garaia?

Ni nahiko ikasle txarra nintzen, bihurri xamarra. Ikastea ez nuen gustuko, baina gimnasia eta horrelako ikasgaietan, beti ibiltzen nintzen gustura.

El conquistador del fin del mundo saioan ikusi zaitugu. Iritsi ez zinen arren, nola imajinatzen duzue munduaren amaiera?

Polita. Patagonian, leku ederak ikusi ditut; pena, utzi behar izan nuela lehiaketa.

Nolako konkistatzailea zara?

Nahiko eskasa izan naiz beti, artaburua; baina programak eman dit beste esparru batean gauzak ikasteko aukera, eta gustuko dut esperientzia berriak bizitzea.

Zein taktika erabiltzen duzue konkistatzeko?

Ezkonduta nago, eta ahaztuta dauzkate kontu horiek; gainera, ligatze kontuetan beti ibili izan naiz gaizki.

Ezkonduta zaude, eta ume bat ere baduzu. Nolako aita zara?

Aita moduan, ondo moldatzen naiz. Lehenengoak bost urte ditu eta, beste baten esperoan gaude-nez, oso pozik. Gainera, niri beti gustatu izan zaizkit umeak. Gure mutikoak, pilotarako ez, futbolarako du sekulako zaletasuna.

TEST-A

Herria: Elizondon bizi naiz, baina jaioterrian, Oronozen, etxe bat egingo dut aurki. **Ikasketak:** Oinarriko ikasketak. **Zaletasunak:** Ehiza, arrantza eta musean jokatzea. **Pilotari onena?** Julian Retege mirestu izan dut beti, eta Ladis Galartza ere gustuko dut. **Pilota-lekubatu?** Eibarko Astelena. **Amets bat?** Ondo bizitzea. **Jatekorik gustukoena?** Okela, edozein modutan gertatuta. **Gorria ala urdina?** Gorria, txapeldunen kolorea.

Eskuak zaintzen dituzu?

Eskuetatik beti ibili izan naiz ondo. Ura, gatza eta ozpina nahastu eta bertan sartzen ditut, eta masajeak ere hartzen ditut.

Belarrondokoak emateko, ala laztantzeko aproposagoak?

Bietarako.

Partidu ostean, haurrei autografoak sinatzeko ere erabiltzen dituzu eskuak.

Bai; izan dira frontoian animatzen, eta ilusioa egiten die. Ni ere, umetan, joaten nintzen aitarekin pilotalekuetara, baina autografoak baino nahiago nuen pilotarietara argazkiak ateratzea.

Imajinatzen dituzu pilotariak praka motzetan?

Pilotariok beti jokatu dugu galtza zuriekin eta, nik neuk, gainekoa ere zuria balitz, nahiago. Baina gauzak aldatzen ari dira, eta telebistak agintzen du.

Kilometroetara etorriko zara?


Partidurik ezean, ahal badut, bai. Beti izan naiz horrelako jaietara joan zalea.



ESKUAK Ura, gatza eta ozpina nahastu eta bertan sartzen dituzue, zaintzeko. I.A.

www.goiena.net

Ondo iruditzen zaizu pertsona ezagunek publikoan jakinaraztea minbizia dutela?



biharamuna

Iñigo Biain

'Mein Kampf' bertsotan

Etsita nengoen euskara sektarismo abertzale sabinianoari lotuta ikusteaz. Bai, euskaldunok izan ezik, gainontzekoek sekta abertzale bezala ikusten gaituzte... edo gintuzten. Izan ere, **Pello Urkiolari** esker, euskarak orain arte betetzen ez zuen esparrua beteko baitu. **Leitzako** zinegotzi honek euskarazko bertso liburu bat argitaratu omen du: *Nere hitza bertsotan*. Ezer berririk ez honaino. Baina kontuan hartzen badugu Leitzako mutil hau UPN alderdiko kidea dela, eta bere bertsotan, besteak beste, Nafarroako espainiaratasuna goraiatzeko duela, euskararen eta ikastolen aurkako jarrera garbia



duela, **Franco** hil zenetik demokraziarik izan ez dela dioela, edota "moroak" berehala kanporatu beharko liratekeela aldarrikatzen duela, garbi ikusten dugu mutil honi esker euskarak muga ideologiko guztiak gainditu dituela (mila esker!). Gainera, lehen aldiz euskarazko liburu bat itsuan bultzatu du **Nafarroako Gobernuak**, liburuaren aurkezpenean izateaz gain, UPNko idazkari nagusi den **Alberto Catalanek** zalantzarik gabe defendatu baitzuen liburua, ideologia eta pentsakera horiek nafar askok dituztela esanez. Noizko *Mein Kampf*-en euskarazko bertso nafar subentzionatua?

eguraldia

MINIMOA
+08

MAXIMOA
+26

Hegoaldeko haizea ibiliko da eta tenperatura igo egingo da. Uda-ko giroa izango dugu. Zerua guztiz edo ia guztiz garbi egongo da.

www.euskalmet.euskadi.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea

5767
zenbakira

SMS bakoitzeko:
1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abestaria) | **KODEA**

Himnoak
Eibar | **EIBAR**
Athletic Club | **BILBAO**
Osasuna | **OSASUNA**
Reala | **REAL**
Real Union | **UNION**

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | **SOROTAN**
Bai euskarari (Pantxo) | **BAI**
Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**
Bizkaia (Maite Benito Lerxundi) | **BIZKAIA**
Ezkerak (Anje Duhalde) | **EPERAK**
Euskal Herrian Euskaraz (Oskori) | **EUSKAL**
Euskaldun berriaren balada (Oskori) | **EUSKALDUN**
Ez da posible (Ruper Ordonika) | **POSIBLE**
Furra Furra (Oskori) | **FURRA**
Galiziarra (Oskori) | **GALIZIARA**
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) | **GERNIKA1**
Haika Mutri (Mikel Laboa) | **HAIKA**

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | **KODEA**

Izarrin hautsa (Xabier Leta) | **IZARREN**
Lepoan hartu ta (Pantxo/Peio) | **LEPOAN**
Marnelaren zai (Sorotan Bele) | **MARINE**
Nere herriko neskatza maite (B.Lerbundi) | **NERE**
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangain) | **NON**
O! Ama Euskal Herria (B.Lerbundi) | **OIAMA**
Tiraki (Oskori) | **TIRA**
Txabamabalnabu (Mikel Urdangain) | **TXATXA**
Txoria bori (Mikel Laboa) | **TXORIA**
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordonika) | **ZAINDU**

Herrikoia
Bagare | **BAGARE**
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**
Ikusi Mendizaleak | **MENDI**
Pintxo-pintxo | **PINTXO**
San Simon eta San Judas | **SAN**

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

1,2,3,4...Real!! | **REAL**
Alboka | **ALBOKA**
Athletic Iuep!! | **IEUP**
Buztan bertsoa | **BERTSO**
Hartu... Aitarek ta semea... | **AITAREN**
Hartu... Ansar | **ANSAR**
Hartu... Argentinarra | **ARGEN**
Hartu... Mexikarra | **MEXIKO**
Hartu... Miamol | **MIAMOL**
Independentzia | **INDEPEN**
Irrintzia | **IRRINTZIA**
Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**
Milazu (pilota) | **MILAZU**
Suprina | **SUPRINU**
Tobera | **TOBERA**
Txalaparta | **TXALA**
Txanbela | **TXANBERA**
Txoootx | **TXOOTX**

LAUI
MUSKARIA
AIZKORAK

NUKLEAR
KALABERA1
EGUZKILORE3

SORGIN
POPATIK
KAPUTX

OHARRAK
1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jar zaitze zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaisiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora, / * Vodafone: deitu 123-ra / ** Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jami gurekin kontaktuan: smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditazakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jami gurekin harremanetan eta deitu: 902 01 21 48 telefonora.